


BERRIGARA



urteari errepassoa

96



LETE arraindegia



LILURA
Edertze Institutua

"ZIKURAK"
Zorionak eta 1.997
zoriontsua opa dizkizu
Lurpe Gaceta



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

*Ventanas San Miguelekin...
denean irabaziko duzu.*


Erosotasunean irabaziko duzu.

*Aurrezpenean eta energian
irabaziko duzu.*

Isolamenduan irabaziko duzu.

Konfortean irabaziko duzu.

Ibargarai, 5 BERGARA ☎ 76 12 21



*Etonki guenera!
Denean irabaziko duzu.*

aurkibidea

261. zenbakia. 1996ko abenduaren 27a. Urteari errepassoa. Ale berezia.

5 **Ikuspuntua:** Antonio Zabala

6 **Hilez hil:** Urtarrila

10 **Berriketan:** Martin Gallastegi

14 **Hilez hil:** Apirila

16 **Berriketan:** Tomasa Zabaleta

28 **Ikuspuntua:** Juan Antonio Migura

52 **Datuen saltsa.**

55 **Atrebentzia ezpada.**

58 **Erretratu Zaharra.**



Saioa Berraondori, eta urte honetan nabarmendu diren beste lau bergarri elkarrizketa egin diogu.

46

Urteari errepassoa, hilez hil, 24 orrialdetan. Urtariletik abendura.



Iñigo Iñurrategik, eta beste bost kolaboratzailek, urteari buruzko ikuspuntu pertsonala eman digute.

19

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA 20570 Bergara
☎ 76 03 97 • Faxe: 76 08 19



BERGARAKO UDALAREN
LAGUNTZAK



GIPUZKIDAKO FORU
ALDUNDIAREN LAGUNTZAK



EUSKO JAURLARITZAKO
KULTURA SAILAREN LAGUNTZAK

Argitaratzailea: Jardun Elkartea.

Zuzendaria: Eneko Azkarate. **Erredakzioa:** Eduardo Mendibil, Mikel Elkoroberezibar, Aitziber Azkondo.

Maketazioa: Eneko Azkarate. **Publizitatea:** Alex Azkarate.

Harpidetzak: Gorka Elortza. **Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Mariji Laskurain, Alex Labaien. **Erredakzio kontseilua:** Gorka Elortza, M. Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien. **Banaketa:** Txantxangorri taldea.

Tirada: 4.500 ale. **Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)
Copyright: BERRIGARA. **Lege gordailua:** SS 50/91. **ISSN:** 1130-6599.

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

BERGARAKO osasun gida

■ ALBAITARIAK:

- ARATZ KLINIKA (ROMAN LAZPIUR). Mobila: 907 48 71 19
- ETXEBERRIA JULIO (GRANJAKO ANIMALIAK)
- ETXEBERRIA JULIO (DEBA GARAICO ALBAITARI OFIZIALA)
- IRASTORZA BENGEOA SABIN (GRANJAKO ANIMALIAK)
- NOGUEIRA HUMBERTO (BALDANA KLINIKA). Mobila: 908 87 68 47

Zurradero, 6 behea ☎ 76 70 67
 Mobila: 908 77 17 32 ☎ 76 43 29
 Mobila: 908 77 17 32 ☎ 76 43 29
 Iribar baseria ANTZUOLA ☎ 76 63 46
 Koldo Eleizalde, 28 ☎ 76 27 97

■ ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA ISABEL

Oxirondo 4, 1. B ☎ 76 32 06

■ BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN VICTOR

Oxirondo 4, 1. B ☎ 76 32 06

■ DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL
- BERGARA HAGIN KLINIKA
- GOROSABEL J. ALBERTO
- IRIARTE IDOIA
- SUDUPE FELIPE
- GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.

Iparragirre, 1 behea ☎ 76 27 95
 Bidekurutzeta 6, 2 ☎ 76 05 77
 Fraiskozuri, 5 behea ☎ 76 56 88
 Artekale 1, 1. C ☎ 76 01 65
 Matxiategi, 18 behea ezkerre ☎ 76 07 66
 S. Arrieta 3, 2. B ☎ 76 38 54

■ FISIOTERAPEUTAK:

- ARZAK MIREN (REEDUCACION POSTURAL GLOBAL)

Masterreka, 7 4. C ☎ 76 43 71

■ GINEKOLOGOAK:

- SERRANO DOKTOREA

Ramon María Lili, 2 ☎ 76 59 39

■ MASAILARIAK:

- AGIRREZABAL JOSE JABIER
- AZPEITIA IRUNE
- CASANELLAS JABIER
- MARTINEZ LUIS JABIER

Boni Laskurain 1, 2. A ☎ 76 15 74
 Agorrosingo igerilekuak ☎ 76 20 51
 Boni Laskurain 5, 2. E ☎ 76 03 78
 Masterreka 7, 3. A ☎ 76 51 18

■ MEDIKUNTZA ESTETIKOA:

- BENITO ISABEL

Bidekurutzeta 46, behea ☎ 76 52 62

■ MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA JULIO
- OXIRONDO KONTSULTATEGIA

Boni Laskurain 3, 1. B ☎ 76 37 50
 Boni Laskurain 2, behea ☎ 76 20 50

■ PEDAGOGOAK:

- IZETA MARIBI (GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA: LOGOPEDIA, PSIKOMOTRIZITATEA)

Simon Arrieta 3, 2. E ☎ 76 26 42

■ PODOLOGOAK:

- ALTUBE EDURNE
- AZPIAZU ARANTZAZU

Simon Arrieta, 2 ☎ 76 07 84
 Herri Lagunak, z/g. ☎ 76 41 32

■ PSIKIATRA:

- GALLASTEGI PABLO

San Martin Plaza 2, 1. ezkerre ☎ 76 26 64

■ PSIKOLOGOAK:

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (LOGOPEDIA-FONIATRIA, PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA)
- URKAREGI PAKITA (PSIKOLOGO KLINIKOA)
- ZUBILLAGA, ZABALA MARISA (PSIKOLOGO KLINIKOA)
- FERNANDEZ J.R.

☎ 76 14 80
 ☎ 76 53 13
 ☎ 76 30 76
 Ramon María Lili, 2 ☎ 76 59 39

Irala, beste garai bateko zinema

Zineak magia eta ametsekin zerikusi haundia du. Lo eta ametsetan egiteko ohea behar bada, zine munduari dagokionez bere ordaina zinemagela izango litzateke. Eta zinemagela zenbat eta hobeza izan, orduan eta errezago gertatzen zaigu mundu liluragarri horretan sartzea; iluntasunean babesturik, ezagutzen ez ditugun tokietara iristea eta biritza desberdinak bizitzean uzten digun mundua. Hau dela eta, Irala zinema bota dutenez, hurrengo lerroak berari buruzkoak izango dira, nahastutako ideia eta oroimen batzuk sentimentalkeria erori barik, bestela Zinema Iralari buruz aritu beharrean "Cinema Paradiso"ri buruz ari naizela emango du eta.

Matinala: Goizeko sesioan posible zen ikustea alde batetik zinema munduko kalasikoak: "El mayor espectáculo del mundo", Marx anaien filmeak, "El halcón y la flecha" edo "Colorado Jim" eta, bestetik, Almerian eginiko western nazkagarriak, hauetan filmeko pertsonaia txarra beti aktore bera zen, guk "El Narizotas" deitzen genion. Hori bai, filmea aspergarria gertatzen zenean goiko pisutik jaurtigai-

ren bat eror zitekeen edo Carl Lewis berak pozik sinatuko lituzkeen lasterketak eman.

Espioia: Txikitan askotan astean zehar karteldegia ikustera joaten ginen. Begiak eta sudurra kristalei pegatuta zein filme eta noiz emango zuten ikusi nahian. Filmea ezaguna bazen, askotan behin baino gehiagotan joaten ginen karteldegia ikustera.


Frustrazioa: Karteldegia ikusterakoan, "El apartamento" edo "Con faldas y a lo loco" eta ezin sartu, gaur gezurra badirudi ere, helduentzat zirelako.

Lehengoa zinema: Kartelera pila bat ateetan, pantaila izugarria eta mila lagun baino gehiago batera ametsetan; osagai hauek ia-ia ahaztuta daude, gaur egun minizine-ak etxeko saloia bezain txikiak dira.


Lubiziaz eta krisialdia: "Tiburón" edo "El violinista en el tejado" filmek eman zituztenean jendez osaturiko benetako lubiziaz izan ziren, batzuk 5etako sesioetik irten nahi zuten eta besteak 7:30etako sesiora sartu. Merkealdietan baino jende eta bultzakada gehiago izaten ziren. Telebista kanal gehiago izatean, bideoak eta entretenimendu berriekin zinemari zeukan indarra kendu zio-

ten. Orain filme asko ikusten dira baina era desberdinetan, batzutan modu txarrean bada ere (formatuak errespetatu barik, koloreak aldatuz, e.a.).

Mundua buruz behera: Kotxeak zineman, kontzertuak frontoian, e.a. Ez dakit norena den errua, baina Bergaran lokal bat falta da kulturarekin lotutako emaldi haundiak eskeintzeko. ■



ANTONIO ZABALA



ARATZ

ALBAITARI KLINIKA

Zurradero 6, behea
Telefona: 76 70 67
Mobila: 907 48 71 19

URTE BERRI ON!!



500 betaurreko eta 400 mila pezeta hirugarren mundurako

Nazioarteko Elkartasunerako Fundazioak (Fisc), 400.000 pezeta eta 500 betaurreko batu zituen 95eko Gabon jaietan Bergaran. Zaireko Idwi irlan eskola berri bat egiteko 400 mila pezeta, eta Nikaraguako Granada hirian Bergara, Astigarraga eta Donostiako Udalen dirulaguntzaz eraikitako Guapinoleko zentroko farmazian banatzeko 500 betaurreko batu ziren bergararren artean. Betaurrekoak urtarrilaren 8an bidali ziren Nikaraguara. Fisc erakundeak bergarrek erakutsitako eskuzabaltasuna eskertu zuen.

ESAN ZUTEN...



IÑAKI ETXEBERRIA

"Beharpenetan denboraldiko produktuak saltzen dira, eta ez sasoi horretarako ekarritakoak"

KONTSUMO TEKNIKARIA

J. MARI NARVAEZ

"Estatu osoan ez dago nik dudan 3.000 piezako fosil bilduma modukorik eta munduan ere gutxi izango dira"


FOSIL BILDUMAZALEA



ALFREDO OTALORA

"Antisorgailu ideala, segurua, eroso, ondoriorik ez duena eta errebersiblea izango litzateke"

MEDIKUA



Aierbe etxean

Bittore Aierbe presoari ongi-etorria egin zitzaion urtarrilaren 14an San Martin plazan. Txalaparta, dantzariak eta bertsolariak izan ziren ekitaldian. Bittore Aierbe Elgetan bizi da eta 4 urte eman zituen estatuko hainbat kartzelatan.



6 urteko inabilitazioa Antzuolako alkateari

Roke Iñarra (EAJ), aurreko legealdian Antzuolako alkatea izan zenari 100 mila pezetako isuna eta 6 urte eta egun bateko inabilitazioa ezarri zion Donostiako Entzutegiak soldaduzkarako alistamenduan ejerzitoari laguntza ez emategatik. 1987. urtean, Jose Ignacio Agirre (HB) alkate zela hartutako erabakia berretsi zuen Roke Iñarrak.



EMILIO PERNAUT

doktorea

Traumatologia eta zirurgia ortopedikoa

Kontsulta: PAKEA. Amillaga, 8 Bergara. ☎ 76 13 49

EGUNA ETA ORDUA ESKATU BEHAR DIRA.

M O T Z E A N

SUTEA ELOSUKO AGARREBURU AUZOAN

Urtarrilaren 21eko gauean sutea izan zen Elosuko Agarreburu auzoan. Emeterio eta Mateo Gabilondoren pinudietako 10 hektarea erre ziren.

IGERILARIAK BIKAIN

Urtarrilaren 21ean Tolosan jokatu zen Euskadiko Txapelketan urrezko hiru domina lortu zituen Eneritz Murguruza igerilariak. Antxon Maiztegik, berriz, urrezko eta brontzezko domina bana lortu zituen. Bestalde, Aitor Oregi pilotari bergararrak urtebeterako fitxatu zuen Asegarcerekin urtarrilaren 16an.

FELIX ETA ALBERTO IÑURRATEGI BERGARAN

Cho Oyu eta Lohtsera egindako espedizioan ateratako diaporamak erakutsi zituzten Iñurritegi anaiek urtarrilaren 23an, leporaino beteta zegoen Novedades aretoan.

ENKARTELADA EPAITEGIAN

Jarraik deituta, hainbat gaztek enkartelada egin zuten Bergarako epaitegi aurrean urtarrilaren 23an, Oñatiko hiru gazteren eta Arrasateko beste baten epaiketaren kontra protestatzeko.

MIKEL HERZOG BERGARAN

500 bat lagun bildu ziren urtarrilaren 26an Mikel Herzog kantari bergararrak Udal Pilotalekuan eman zuen kontzertua ikusteko.



Zoru konponketak

Herriko hainbat kale eta auzotan zorua konpontzeko, 10 milioi pezeta gastatu zituen Udalak. Era berean, 15 miloiko inbertsioa egin zuten Udalak eta Diputazioak autobus geltokietan markesina berriak jartzeko.

1 9
9 6

Kirol sariak

Jokin Etxaniz pilotaria aukeratu zuten Berrigarako irakurleek 1995eko kirolaririk onena. Kirol elkarterik onenaren saria, Ariznoa Gimnasia Erritmiko taldeak jaso zuen eta Honorio Agirregabiriak, berriz, urteetan herriko kirolaren alde egindako lanagatik sari berezia eraman zuen. Berrigarak eta Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako sarien banaketa hilaren 30ean egin zen.



P R O T A G O N I S T A K



XABIER DE ZERIO

48 urteko artistak, Ibercajaren bitartez, egurrez, harriz eta burdinez landutako 17 eskultura erakutsi zituen urtarrilean zehar Zaragozako Ibercajako Kultur Zentruan.

USUE MANTEROLA

BKEko eskubaloijokalariari ukabilkada bat eman zion begian, Lakuaren kontra Gasteizen jokatu zen partidua ikusten zegoen mutil batek. Begi ondoa beltzitu egin zitzaion.



XABIER LARRAÑAGA

Historian lizentziatua den 28 urteko bergararra, Arrasateko Udaleko dokumentazioa sailkatzen aritu zen. Arrasateko liburutegi teknikoan 2.000 bat tomo daude.

abenduak 27 ◆ BERRIGARA ◆ urteari errepaso

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa


Amillaga, 1 (B Pabiloia)

☎ 76 28 04

BERGARA

1 9
9 6

abenduak 27 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa



Irala zine aretoa bota eta bertan lokal komertzialak, bulegoak eta garajeak jartzeko hitzarmena otsailean sinatu zuten Alkateak eta Iralako jabeek.

Hitzarmena Iralako jabeen eta Udalaren artean zinea botatzeko

Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak eta Jose Maria Irizar eta Jesus Quemada Espectaculos Bergara S.A. ko ordezkariak hitzarmena sinatu zuten otsailaren 16an. Hitzarmenean jasotzen zenaren arabera, Udalak Irala zine aretoaren lursailak berkalifikatzeko konpromezua hartu zuen, bertan lokal komertzialak, bulegoak eta garajeak jarri ahal izateko. Bestalde, Udalarik zegokion %15eko aprobetxamenduaren eta lurraren erabilera aldaketaren ordainetan, 18 milioi pezeta ordaindu beharko zizkion Udalarik Espectaculos Bergara S.A. k.

ESAN ZUTEN...



BENITO CANTERO

"Lehen mendira kamararekin joaten nintzen eta orain, berriz, kamararekin mendira. Gailurrera heltzea ez dit axola"

ARGAZKILARIA

ANDRES OSA

"Irakaskuntzan bertsolaritza betegarri gisa erabiltzea, herriaren literaturari burla egitea da"

IRAKASLEA




IRUNE AZPEITIA

"Saunarekin gorputza garbitzea lortzen da, desintoxikatzeko ona da sauna hartzea"

MASAJISTA

Elurra teilatuetan


Elurte gogorak izan ziren otsailaren 20, 21 eta 22an Bergaran. Elosu mendatea itxita egon zen eta Angiozarren 40 zentimetroko elur kapa izan zen. Aratuste zuriak izan ziren aurtengoak, karnabal martitzen gauerdian, sekulako elurtea bota batitzuen Bergaran.



Garaixea sendatzen

Agarreko garaixean injekzio balbulen bidez, onddoen kontrako gel berezi bat eta pipien kontrako beste tratamendu bat jarri zuen martxan otsailean Mungiako Tecma enpresak. Agarreko garaixek %93ko hezetasuna zeukan.

GAR



**Sukaldeak. Horma armairuak.
Neurrira egindako altzariak.
Ateak eta leihoak. Arozlanak.**

ERAKUSKETA: Arruriaga 3, behea ☎ 76 58 86

Urte berri on!!

M O T Z E A N

GOSE GREBAN

Aritz Egidazu, Iñaki Ibabe, Mikel Osa eta Pedro Zumelaga presoek gose greba egin zuten otsailaren lehen egunetan, presoak Euskal Herri-
ra ekartzeko eskatzeko.

HAIZEA ETA EURIA

Haizeak eta euriak hainbat arazo eragin zituzten otsaileko lehen astean. Hiru egunetan 125 litro jaso ziren metro karratuko Bergaran.

UDAL ARTXIBATEGIA

Udal artxibategia zabaldu zen otsailaren erdialdean. Hainbat udal dokumentuz gain, Zerrajerako, Seminarioko eta Bergarako Kultur Ekintzaren artxiboak, eta parrokietako mikrofilmak gordezten dira bertan.

AMODIOZKO GUTUNAK

Jardunek antolatutako amodiozko gutunen lehiaketara 176 gutun aurkeztu ziren. Imanol Sorondok eraman zuen lehen saria eta Iñigo Iñurategik, bergarar onenarena.

KAMIOI BAT IRAULI

Kamioi bat irauli egin zen Ugarrixan otsailaren 14ean. Kamioia deskargatzen ari zirenean, maldan behera jausi zen. Ez zen zauritutakorik izan.

ZUHAITZ EGUNA

100 bat zuhaitz autoktono landatu ziren otsailaren 17an San Martzialen.




Etxaniz eta Ibaberi omenaldia

Espetxean 16 urte zeramatzatela eta, omenaldia eskaini zitzaizen Etxaniz eta Ibabe presoeri otsailaren 23an. Jaialdian bertsolariak, dantzariak eta kantariak izan ziren. Eusko Gudariak kantatuz eta Bittor Aiape kantariaren emanaldiarekin eman zitzaion bukaera ekitaldiari.

Joxean Tolosa omendua

Joxean Tolsa pilotaria omendu zuen Bergarako herriak otsailaren 2an Udal Pilotalekuan. Oxirondo Elkarteak antolatutako ekitaldian ohorezko aureskua dantzatu zitzaion Tolosari eta sari ugari jaso zituen herriko hainbat elkarteren izenean. Tolosak Bergarako Udal Pilotalekuan eman zituen lehen urratsak.



P R O T A G O N I S T A K



ARITZ BERRAONDO

Pilotari antzuolarra Estatu Batuetan, Kalifornian, hainbat partidu jokatu zituen otsailean zehar bertako Euskal Etxeek gonbidatuta. San Franciscon jokatu zuen, besteak beste.

MIREIA GABILONDO

Otsailaren 23an estreinatu zen Tanttakaren "El Florido pensil" antzezlanaz zuzendu zuen. Mikel Garmendia eta Ramon Soroz dira obrako protagonista nagusiak.



M. JESUS UGALDE

Abeslariak eta Edu Muruamendiarrak dantzariak Bruselako Eusko Ordezkaritzaren inaugurazio ekitaldian izan ziren otsailaren 13an. Lehendakaria ere bertan izan zen.


SANTOS Irrati-TB

Masterreka, 2
BERGARA
☎ 76 26 10

SALMENTA ETA ZERBITZU TEKNIKOA

- Koloretako telebista
- Argiztapena
- Elektrodomestikoak
- Antenak
- Bideoa
- Soinua
- Sukaldeko altzariak
- E.a.

URTE BERRI ON!



Martin Gallastegi

1909an Moiu-a-aldeko baserrian jaioa, Martin Gallastegi bergararra Rikardo Arregi kazetaritza sarietan saritua izan da aurten gerra zibilaren garaian euskal prentsaren aintzindarietako bat izateagatik. Gaur egun Zarautzen bizi da.

Tailagilea izan da ofizioz eta bere bizitza gehiena Zarautzen eman du. Orain, berriz, jubilatuta dago eta osasuna lagun, senideen konpainiaz eta Zarautzeko bizimoduaz disfrutatzen du.

- Nola gogoratzen duzu zure haurtzaro eta gaztaroa?

- Futbolista izan nintzen garai batean, Alave-

sen ere jokatu nuen, Alaves ondoen zegoen garaietan: Ciriaco eta Quincocek internazionalak bertan jokatzen zuten eta taldea lehen mailan zegoen. Osasunak ez zidan lagundu eta 18 urterekin futbola laga behar izan nuen. Asko sufritu nuen, makina bat negar egin nuen.

- Eta nola hasi zinen euskaraz idazten?

- Futbola lagatakoan hasi nintzen euskararekin, euskaraz irakurtzen. Zalea nintzen idazteko baina euskara ondo menderatzea beharrezkoa nuen, konturatu nintzelako ez nekiela ez euskaraz eta ez erdaraz. Etxean euskaraz egiten nuen baina eskolan erdaraz hitzegin behar... Euskarazko gramatika ika-

si nuen Txomin Amasorrainekin batera eta orduan hasi nintzen euskaraz idazten, 22 urterekin edo.

- El Dia, Euzkadin... hainbat egunkaritan idatzi zenuen.

- Olerki bat bidali nuen El Dia egunkarira. Monzonen bitartez Lauaxeta ere ezagutu nuen eta Euzkaldiko erredakzioan elkarrekin ibili ginen. Holaxe hasi nintzen idazten periodikuan. Unidad, orduko falangisten aldizkarian ere idatzi nuen. Ni hasi nintzen Unidaden euskaraz idazten. Diario Vascon ere idatzi nuen orain gutxira arte.

- Zelako gaiak lantzen zenituen?

- Bururatzen zitzaizkiona. Nirekoia nintzen, gi-

zarteko gaiak eta ez nituen lantzen, batez ere niri bururatzen zitzaizkidan gauzak.

- Ordurako egurra lantzen bazenekien...

- Bergaran hasi nintzen aprendiz, Galarragaren tailerrean, Zubietan. Santuak eta altareak egiten genituen. Ondoren hona, Zarautzera etorri nintzen eta bertan ezkondu nintzen. Nire andreak elikagaien denda zeukan baina udan lan asko eta neguan gutxi. Ez zen irabazi ona. Denda kendu eta nire lanekin hasi ginen. Piskanaka piskanaka ondo joan zitzaigun, lan asko egin dugu. Landetan adibidez nire imajin asko dauzkate... Handik apaizak etortzen ziren, enkargatu eta beraiek eramaten zituzten.

- Ameriketara ere joan zineten...

- 1941ean ezkondu eta 1950 urte inguruan Ameriketara alde egin genuen. Nire andreak anai eta joanak ziren, gerran ihes egindakoak eta haien bidez hara joan eta lau urte

egin genituen Hegoamerikan. Baina Venezuelan ez zitzaidan batere ondo joan. Santiago de Chilen, ostera, euskaldun asko zeuden eta lan asko ematen zidaten. Diruak beherra egin zuen, umea ere gaizki jarri zen eta etorri egin behar izan genuen. Handik gutxira, 4 urteko mutil koskorra hil zitzaigun. Lau seme-alaba izan genituen eta bi semeak hil ziren. Suerte txarra izan dut horrekin.

- Orain, gerra garaian egin zenuen kazetari lana aitortu dizute...

- Ilusio piskat egin dit, bai. Ezer izateko asmoz ez nuen idatzi, gustatu eta erreztasuna nuelako baizik. Orain dela gutxirarte izan naiz idazten: antzerki lanak, ipuinak ere bai, nobelak... gehiena publikatzeke daukat. Literatur lehiaketetan behintzat aurre samarrean ibili naiz beti, onena ez naiz izango ezertan baina txarrena ere ez. Baina orain ez dut idazten; hitz bat esan nahi eta ezin azaldu burura. Burua lainotzen hasi...

- Oraingo kazetaritza jarraitzen al duzu?

- Lagata daukat. Ez dut euskaraz irakurtzen eta politika kontuak ere batere ez. Gerra denboran gai horrekin asko sufritu genuen eta ez daukat edaderik gai horretan eztabaidan hasteko. Nik pakea nahi dut, 88 urte egitera noa, eta adin honekin ez naiz nire burua izorratzen hasiko...

“Orain dela gutxirarte izan naiz idazten eta nire lan gehienak oraindik publikatzeke daude”

- Eta Bergarara joaten jarraitzen duzu?

- Batere ez. Bergarako senide denak hil dira. Tristura haundia hartu nuen bakarrik gelditzean. Bergara ezagutu ere ez nuke egingo, gaztetan alde egin nuen Bergaratik eta azkenaldian ez naiz joan. Dena berria da niretzat.



BILTOKI

dekorazioa

ESTILO KLASIKOKO ALTZARIAK ETA GAZTE ESTILOKOAK.
ALFONBRAK, KORTINAK, LARRUZKO SOFAK...
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK
SAN MARTIN PLAZA. Tfnoa: 76 43 51

sukalde eta bainuak

SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
GARANTIA ETA ZERBITZU HOBERENA.
SAN PEDRO PLAZA 2/G. Tfnoa: 76 34 00

elektragailuak

MERKATUKO MARKARIK ONENAK
BARRENKALEA, 20. Tfnoa: 76 04 71

1 9
9 6

abenduak 27 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa



EAJ garaile hauteskunde orokorretan

EAJ izan zen martxoko hauteskunde orokorretan Bergaran botorik gehien jaso zituen indar politikoa, 2.559 botorekin. Zatiketa ondoren orokorretan irabazten zuen lehen aldia izan zen. HBk, berriz, 2.244 boto lortu zituen; PSE-EEK, 1.358 boto; EAK, 1.278; PPK, 657 eta IUK, 480 boto. 12.799 bergararrek zuten botoa emateko eskubidea eta 8.819k eman zuten. Abstentzioa %31,10ekoa izan zen.

ESAN ZUTEN...



PEPE REI

"Ez dira GALen bihotzeraino helduko, GALen bihotza Estatu espainiarra bera baita"

KAZETARIA

IÑIGO ALBERDI

"Organo aldetik Bergara bezain aberatsa den herri gutxi dago, Bergaran konbento eta eliza ugari daude eta"

MUSIKOA



M. JOSEFA GANUZA

"Olaso Dorrea Fundazioaren nahia etxea museo egitea eta artxiboak jendeari erabiltzeko aukera ematea da"

MONZONEN ALARGUNA



Erraminta makina ferian

Bergarako Lazpiur S.A.k, Orni S.A.k eta Soraluze Kooperatibak euren makina berrienak erakutsi zituzten Bilboko Erraminta Makinaren Nazioarteko Ferian. Oso pozik itzuli ziren Bilbon izandako erantzunagatik.



Erramu Zapatua

Martxoaren 30ean ospatu zen Erramu Zapatuko Feria. Ibargarai kalean eta Seminarioan abelburuak, baserriko produktuak eta nekazal makineria izan ziren ikusgai. Jendearen artean ikusmin handia sortu zuen.

BASTER jantzidenda

Telesforo Aranzadi, 2. ☎ 76 10 08

M O T Z E R A N

ZENTRAL ELEKTRIKOA ITXI

Goiko Estazioko zentral elektriko atea ixteko erabakia hartu zuen Udal Gobernu Batzordeak, Bulego Teknikoak egindako azterketaren araberako oso egoera txarrean zegoelako.

PANTI GOSE GREBAN

Xabier Oregi "Panti" presoak 15 egun gose greban bete zituen martxoaren 10ean. Jose Mari Etxanizek, Pedro Belastegik, Eukene Garciak eta Luis Etxeberriak errelebo hartu zioten hilaren 11n.

ALKATEARI MEHATXUAK

Martxoaren 11ko Ez-ohizko Plenoan, Alkateari telefono dei batez egindako mehatxua salatzea erabaki zuen Udaltzako, bergararren Alkatearekiko solidaritatea eskatuz. HB abstenitu egin zen.

EZTABAIDA FOROAK

Elkarrik antolatutako herritarren eztabaida foroak jarri ziren martxan martxoaren 21ean. Euskal Herrian bizi den gatazka ikuspuntu ezberdinetatik aztertzeko, ideologia ezberdineko 25 bat bergarar bildu ziren foroetan.

FATXADAREN ZATI BAT BEHERA

San Martin ikastetxeko fatxadaren zati bat lurrera etorri zen martxoaren 26an. Eguerdiko ordubietan gertatu zen eta zorionez ez zuen inor azpian harrapatu.



San Anton ermita tokiz aldatu

Maltzaga-Urbina autopistako peaje bat San Anton ermita dagoen tokian jarrikoenez, ermita tokiz aldatzea proposatu zuen Diputazioak. Bergarako Udalak autopistaren hasierako trazaketa aldatzeko alegazioa aurkeztu zuen baina Diputazioak ez zuen onartu.

Gazte Koordinadora

Bergaran gazte mugimendua bizitzeko helburua duen Gazte Koordinadora aurkeztu zen martxoaren 28an Kultur Etxean. Gazte Koordinadoran, Bergarako Gazte Asanblada, Jarrai, Ikasle Abertaleak, Txapa Irratia Kolektiboa eta Presoen aldeko ikasleak biltzen dira.



P R O T A G O N I S T A K



JABIER BERASATEGI
Tratamientos Termicos TTTko presidentea "Gipuzkoako Urteko Enpresa Gizona" izendatu zuen Gipuzkoako Merkatal Ganbarak. TTTk 72 langile ditu gaur egun eta 1.000 milioi inguru fakturatzen du urtean.

GREGORIA ARANBURU

Mizpirualde Egoitzan bizi den eibartarrak 101 urte bete zituen martxoaren 12an. Sebastian Azeitiaren alargunak, Egoitzako lagunekin ospatu zuen urtebetetzea.



KARMELO AZKOITIA

50 urteko atxabaltarra Bergarako Industrialdeko gerente izendatu zuten martxoan. Aretxabaleta eta Oñatiko industrialdeetako gerentea ere bada.

ZORIONAK



Igaro

Barrenkalea, 35. Tfnoa: 76 17 27

*Kosmetika eta oparigaiak.
Eder gela.
Bio solariuma.*

Igaro

Usaindegia

1 9
9 6

abenduak 27 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa

1 9
9 6

abenduak 27 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa



Bergarako planeamendu orokorra onartu zen apirilean.

Arau Subsidiarioak onartu zituen Diputazioak

Arau Subsidiarioak onartu zituen Diputazioak apirilaren 16an. Bergarako ezaugarri urbanistiko, ekonomiko eta sozialak hartu eta herriko planeamendu orokorra jasotzen da Arau Subsidiarioetan. Eibar-Gasteiz autopista, Beasain-Durango bariantea eta Abiadura Haundiko trenaren ibilbidea ere aipatzen dira arauetan. Arauen arabera, Bergaran, gehienez, 16.000 biztanle izango dira eta horretarako 70,7 hektarea berkalifikatu behar izan dira. Bestalde, 1.778 milioiko aurrekontua onartu zuen Udaltzako apirilaren 22ko Plenoan. Kopuru horri, Mizpirualde Egoitzako (200 milioi) eta Udal Euskaltegiko (53 milioi) aurrekontuak gehitu behar zaizkio. EAJ, EA eta PSE-EEK atera zituzten aurrera aurrekontuak; HBk, berriz, osoko emendakina aurkeztu eta ezezko botoa eman zuen.

ESAN ZUTEN...



JOKIN INTZA


"Eusko Alderdi Jeltzalearen helburua Euskadiren independentzia da, izan da eta izango da"

JELTZALE BETERANOA

JOSE IRIARTE

"Gizarteak biolentzia jasaten du eta herriari interesatzen zaio espektadore pasibo ez izatea"


ZUTIKEKO KIDEA



IMANOL BOLINAGA

"Estatutua bete egin behar da lehenbizi, eta gero senatua zer izan daitekeen edo beharrezkoa den planteatu behar da"

EAJko SENATOREA



Udal intsumisioa

HBk eta Eak bat egin zuten apirilaren 10eko Plenoan BOTA talde antimilitaristak aurkeztutako mozioa aurrera ateratzeko.

"Soldaduzka edo Ordezko Zerbitzu Soziala egiteari uko egiten diotenei Kode Penal berriak inposatu nahi dien inhabilitazioak Udalak ez onartzea eta, era berean, ejerzitoari inolako

laguntzarik ez ematea" eskatzen zuen mozioak. Euskal Udal Intsumisioen Mankomunitatean Bergarako Udalak ordezkaritza izatea ere onartu zen. EAJk ezezko botua eman zuen eta PSE-EEKo zinegotzia ez zen agertu. EAJk mozio alternatiboa aurkeztu zuen baina Eak eta HBk horren kontrako botua eman zuten eta BOTArena onartu zen.

Urte berri on!!



Central Hispano

Telefonoak: 76 16 44 • 76 19 47 • 76 18 48 • Faxe: 76 19 49

M O T Z E A N

**BI BERGARAR KOTXE
ISTRIPUAN HIL**

Jose Luis Ugarteburu eta Herminia Crespo 68 eta 63 urteko senar-emazte bergararrak hilik gertatu ziren apirilaren 8an Bergarako saihesbidean izandako kotxe istripuan. Hildakoen alaba eta Herminiaren bi ahizpa larri zaurituak gertatu ziren.

**MUSIKA ESKOLAKO
ORKESTAKOAK CHULILLAN**

Musika Eskolako Orkestako kideak Chulillan (Valentzi- an) izan ziren Aste Santuan. Harrera ofiziala eskaini zieten bergararrei eta kontzertua eskaini zuen Orkestak.

**MIKEL DIEZ ZENAREN
OMENEZKO JAIALDIA**

Mikel Diez zenaren omenezko jaialdia egin zen Zugarramurdin apirilaren hirugarren astebukaeran. Mikel Diez bergararra Zugarramurdiko Kilimiliklik txotxongilo taldeko kidea zen. Omenaldian, besteak beste, Bergarako Taun-Taun eta Kukuma taldeek hartu zuten parte.

ZIKLISMOA ETA FUTBOLA

Fagor taldeko Mikel Roldanek irabazi zuen apirilaren 20an Bergaran jokatu zen gazte mailako Donostia 97 Klasika. Bestalde, Bartzelona eta Ajaxeko gazte mailako taldeek partidua jokatu zuten apirilaren 7an Agorrosinen Realak antolatzen duen txapelketaren barruan.



Aranzabal Lagunartea

Aranzabal Lagunartearen aurkezpena egin zen apirilaren 1ean Pertxa Elkartean. Bertan, besteak beste, Aranzabal, Karpin eta Albistegi Realeko jokalaria, Astiazaran kontseilaria eta Iñaki de Mujika kazetaria izan ziren. Eurekin batera, peñako 40 bat lagun.

1 9
9 6

Langileen protestak

Protesta ekitaldiak egin zituzten Narbaiza, Algodonera, Tavesa eta Cotonos Agirrezabal ehungintza enpresetako langileek apirilaren zehar. Narvaizako langileek, lanpostuei eusteko inbertsioak eskatzeko, Algodonera eta Tavesakoek konbenioaren eta inbertsioen inguruan eta Cotoneseoek langile bat kaleratzeagatik.



P R O T A G O N I S T A K



MIKEL LASKURAIN

Goenkale sioagatik ospetsua egin den 31 urteko aktore bergararraren HIKA taldeak, "Henry Bengoa Inventarium" lana antzeztu zuen Novedadesen apirilaren 12an.

AMAIA ARANZABAL

Mendizale bergararra eta Josu Bereziartua bere lagun azpeitiarra Himalayara abiatu ziren apirilaren lehen astean Nepaleko Ama Dablam (6.856 m.) mendiaren gailurra zapaltzeko asmoz.



**BEÑARDO
KORTABARRIA**

Arrasate Presseko zuzendaria den kazetari antzuolarrak herri komunikabideei buruzko hitzaldia eman zuen apirilaren 23an Madrilgo Euskal Etxean.

abenduak 27 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa

Zure konfidantzako denda

LASAGABASTER



Zerkaosteta, 1 eta 2. ARRASATE. Tfnoak: 79 27 27 / 79 13 55



Tomasa Zabaleta

*Joan zen urtera arte Fagor
Elektragailuetan ibili zen lanean
Tomasa Zabaleta. Aurtengo
otsailean, oster, Bergarako
Jubilatuena elkarteko presidentea
izendatu zuten. Gustora dabil lan
berri honetan.*

Gaur egun 775 bazkide inguru dira jubilatuetan eta Tomasak, etorkizunean, kolektibo honek aldaketa haundiak izan beharko dituela azaldu digu.

- Zelakoa izan da lan mundutik jubilatuen zuzendaritzara egindako pausoa?

- Oso interesgarria. Enpresa munduan gazte jen-

dearekin taldeko lana egitera ohituta nengoen eta hasieran arraroa egin zitzaidan hona etortzea. Baina zuzendaritza batzordean oso jende jatorra eta nahiko gaztea gainera aurkitu dut. Lanerako gogoia duen jendea da eta horrek lan egitera motibatzen zaitu.

- Zein izan da elkar-tearen lorpenik haundiena?

- Orain arte Jubilatuen Egoitza Diputazioarengandik oso dependientea zen eta orain prozesu oso inportantea burutu dugu gure elkarte propioa eratzeko, San Xosepe elkarte hain zuzen ere. Diputazioak funtzionamendu aldaketa planteatu digu eta, beraz, hemendik aurrera

autonomoak izango gara. Jaurlaritzako Elkarteen Legera egokitu behar izan ditugu estatutuak eta dagoeneko bazkideak egiteko prozesua zabalik dago. Harrera oso ona izan dugu gainera: oraingoz 775 bazkide gara baina 800etik gora iristeko itxaropena daukagu. Otsailean egingo den asanbladan, berriz, estatutuak, kuota (1.000 pezetakoa) eta zuzendaritza batzordea ratifikatu beharko dira.

- Zeintzuk dira zuzendaritzaren helburu nagusiak?

- Lan batzorde ezberdinak sortu dugu: rekreazioa, zerbitzuak, asistentziala eta kulturala. Bakoitzak arduradun bat izango du eta arduradun

horrek jestio plangintza bat egin beharko du. Ondoren, zuzendaritza batzordeak komisio bakoitzaren jarraipena egingo du. Helburu nagusiak bi izango lirateke: jendeak parte hartzea batetik, hau da, organu partizipatiboak izatea eta, bestetik, efikazia, zerbitzu bat eskeintzea. Hori lortzen badugu antolaketaren kultura sortuko dugu eta hori oso garrantzitsua da. Azken batean, pertsonak aldatzen doaz baina antolaketa egitura hori beti mantenduko da.

- Orain arteko plan-teamendua aldatuko duzue...

- Jubilatuaren fisionomia erabat aldatu da gaur egun: gero eta gazteago jubilatzen da jendea eta jende honek izugarriko kapazitatea dauka, azken batean beraiek eraman baitute aurrera industria garapena. Eta hortik abiatuta, jubilatuen funtzio soziala zein den asmatu behar dugu, kualitatibo zein kuantitatiboki talde gero eta garrantzitsuagoa bai-

kara. Horri buruz erreflexionatzeko topaketak egitea ezinbestekoa da, Zestoako kongresoan ikusi den bezala.

- Zein izan daiteke jubilatuen funtzio hori?

- Bada jubilatuek eskeini dezaketen balore mundu bat. Lehenbizi geure buruari galdetu behar diogu zeintzuk diren gizartearen gabeziak: ilusiorik gabeko mundua, itxaropenik gabekoa, desoreka askorekin... Jubilatuak beste kultura batetik dator (austeridad, diziplina, etab.) eta balore horiek iraunkorrak dira. Jubilatuak lehen erretiratutakoak ziren baina gaur egungo gizarteari zer eskeini badaukate.

- Zaila ematen du imagina hori aldatzeak.

- Zerbait eskeini dezakegun ala ez aztertu behar dugu. Ezezkoan bagaude ezer gutxi egin daiteke baina zerbait egin dezakegula pentsatzekotan badugu proiektu bat eta hortik jo behar dugu. Aldaketaren ideia oso garrantzitsua da eta zentro-

ko zuzendaritza da aldaketa hori eragin eta bideratu behar duena. Komunikazio aldetik lan asko egin behar dugu eta jendeari bere partaidetza eskatu. Zuzendaritzak bazkideak mugiarazteko funtzioa izango du eta asanblada jendea motibatuzeko tresna oso egokia izan behar da, jendeak bere etxean zer gertatzen den jakin behar du aurretik.

“Jubilatuak, lehen, erretiratutakoak ziren, baina gaur egun gizarteari zer eskeini badaukagu”

- Eguneko Zentroa Jubilatuetan irekitzeko arazorik izan da?

- Hasieran kontra azaldu ginen baina solidaritatez baietza eman dugu. Egitura aldetik ondo gauden? Dexente ondo dago gure zentroa. Beste egoitza batzuk ikusita, oso ondo gaudela esango nuke.



Komunikazioan kontzeptu Berria



CD-ROM

- Katalogo interaktiboak
- Formakuntza sistemak
- Informazio puntuak
- Liburu elektronikoa



INTERNET

- Diseinua Web orrietan
- Web korporatiboa
- Produktoen Web-a
- Web-en kokapena

**"Enpresan Multimedia
Aplikatzeko, oinarriko Gida"**
DOHAINIK. ESKA EZAZU !!


Loramendi, 4 - SAIOLAN Zentruan -
20.500 **ARRASATE** - Gipuzkoa -
Tels.: 943 - 770500 / 790211
Fax.: 943 - 795701
Web: www.danka.es
e - mail: danka@danka.es

Gure bezeroak:

**DANONA, TAVEX ALGODONERA, FAGOR,
ZTB, LANA, CAJA LABORAL, eta abar...**

DANKA multimedia INTERNET-ean dago (www.danka.es). Eta zure enpresa ?


ARREGI AROZTEGIA



**AROZLAN MEKANIKOAK,
ATEAK, HORMA ARMAIRUAK,
TARIMAK ETA PARKETAK,
NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK,
KAPRESA PVCZKO LEIHOAK.**




TAILERRA: Urteaga, 20 ☎ 76 11 73 • ERAKUSKETA: Bidekurutzeta, 38 ☎ 76 31 03



SUKALDEKO ARMAIRUAK



PERTSIANAK



Bidekurutzeta, 38 ☎ 76 31 03

EDERGAI

- PINTURA MATERIALA • ESKULANAK •
- MARKO JARTZEA:
- Ispiluak - Laminak - Koadroak -
- Oleoak - Tituluak -

Kaleko berri

Urteari bukaera ematen diogun garai honetan herriko kalerik "pribilejiatuenak" argiz jazen dizkigute, zerbait berezia datorkigunaren seinale. Gainontzeko kale bazter eta txoko xumeagotan garai honetako iluntasanaren hotzak ez du bonbilatxoan dizdirarik jasoko (eguberriak paso egingo ote du herriko izkin horietan?).

Kale kantoi honetatik urteari begira aurten ere hoztasuna gailendu zaigu gure herri honetan (eta harrigarria dirudien arren hotzik haundienak udaran jasaten dituzte gure kaleek). Argi dago ez direla nahikoa udaletxeak antolatutako ekintza ezberdinak (batzuk txalagarriak, beste batzuk ez hainbeste) kale giroa berotu eta bizitzeko. Eskerrak baden herrian kaleok kolorez jantzi eta aldiaren behin bada ere bizitasun pixka bat jartzen duten talde, kolektibo ezberdin eta zenbait tabernari ere; benetan eskertzekoa hauen ahalegina. Hauen lanak, ordea, eta zoritxarrez, behin baino gehiagotan guztion den udaletxetik laguntza jaso beharrean trabak besterik ez dituzte izaten ekitaldiren bat antolatzerakoan. Ondo dago segurtasun arau bat-

zuk jarri eta bete araztea, baina ez da nahikoa arauak jartzea: hauek bete ahal izateko laguntasun eta erreztasun guztiak eman beharko lituzke araugileak. Kalegorrian ikusi ditugu gazteak azken egunotan, kalegorrian edo leku egokirik gabe beste hainbat talde... Kalearen babes gordina ez da ederra izaten, eta arazo hori ekidin nahian dabilta herriko talde ezberdinak. Konponbidea ez da erreza, baina hitz eginda eta imajinazio apur batekin...

Zoritxarrez ez daukagu imajinazioaren beharrik lrala aretoa zena kale argitan ikusteko; pekatua egina dago, eta inguruko aretorik bikainenetakoa espekulazioak janda behera etorri zaigu. Eta UNEDaren etorkizuna jario berdinetik ez ote datorren... Poliki-poliki galduko ditugu bertako ikasketak, ikerketak, liburutegia... nahiago nuke oker banebil. Ez da eztabaida eta sesiotarako garaia, erabakiak adostasun eta zuzentasunez hartzeko garaia baizik. Zenbait arlotan, zoritxarrez, ez dago atzera egiterik, baina beste hainbatetan garaiz gabilta. Beraz, erabakita daukat aurten Errege Magoei bidaliko diedan zerrenda luzean eskakizun berezi bat egi-

tea: gorago aipatutako gai ezberdinei buruz, eta beste hainbati buruz, erabakiak hartzea dagokienei eman diezaietela argia eta ausardia erabaki zuzenak hartzeko. Iritsiko ote zaizkigu herrikom kaleetara aire berriak? ea datorren urtean ez diguten kalerik egiten. ■



IÑIGO INURRATEGI

abenduak 27 ◆ BERRIGARA ◆ urteari errejasoa



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

zumelaga
JATETXEA

URTE BERRI ON!!

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

1 9
9 6

abenduak 27 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa



Telebista kamarak berriz ere Udal Pilotalekuan.

Udal Pilotalekua Udalaren eskuetan

Bergarako Udalak, pilotalekuaren jestia hartu zuen maiatzean, iazko martxoan Eskutaldea enpresarekin 2016. urtera arte sinatutako kontratua bertan behera lagaz. Udalak 25 milioi pezeta ordaindu zizkion, dagoeneko maiatzean desagertuta zegoen Eskutaldea enpresako sozioetako bati, Herederos de Gabilondori. Gogoratu behar da frontoian berritze lanak egin zituela iaz Udalak, besteak beste partiduak telebistatik modu onean eman ahal izateko. Frontoia Bergarako Udalaren eskuetan zela, Asegarce Pilota enpresa eta Udala akordio batera heldu ziren eta Asegarcek urtero 24 pilota antolatzeke konprokezua hartu zuen.

ESAN ZUTEN...



J. MARI LAZKANO

"Nire pintura intenporala izatea nahi dut. Arkitektura intenporala da eta nire kuadroetan gizakia ordezkatzan du"

PINTOREA

ERIKA MENDIBIL

"Langabeziatik irtetzeko onena geldirik ez egotea da"

LAN TEKNIKARIA




ALEX BARRUSO

"Pake proposamen guztiak hartuz gero, elkarrizketa nahia somatzen da, baina gero bakoitza bere esparruan itxita dago"

ELKARRIKO KIDEA

Intsumisioari buruzko mozioa ezerezean

Udal Gobernu Batzordeak, EAJ eta PSE-EEren aldeko eta EAren kontrako botoekin, apirilaren 10eko Plenoan onartutako BOTA antimilitarista taldearen mozioa indarrean ez jartzea erabaki zuen. Apirilean Plenoan hartutako erabakia legearen kontrakoa zela eta soldaduzkara joan nahi duten herriko gazteei kalte egitea zela adierazi zuen Gobernu taldeak.



Gorkako kantina berria

Gorkako kantina berria inauguratu zen maiatzaren 22an. Bergara eta Antzuolako Udalek eta Gipuzkoako Diputazioak, datozen bi urtetan Itxumenditik kantinarara ura eramateko hitzarmena sinatu zuten.

PB

Zorionak!!

PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK

- APAINKETARAKO PINTURAK
- ERROTULOAK

Aranerrika, 32 behea BERGARA. Telefonoa eta faxa: 76 11 40

M O T Z E A N

JARDUNEN BATZAR OROKORRA

Jardun Elkarteak urteko balantzea egin zuen maiatzaren 7an Batzar Orokorrean. Andoni Etxeberria Jarduneko presidentea, eta Kultura, Gazte, Emakume, Formazio eta Komunikabide taldeetako ordezkariak 1995ko balantzea eta 96rako asmoak azaldu zituzten.

LABEGARAIETAKO ZENTRAL HIDROELEKTRIKOA

Bergarako Industrialdeak Labegaraietako Zentral Hidroelektrikoa erosi zion Kutzari 60 milioi pezetaren truke.

BERGARAKO JAIAK

Bestetan baino jende gutxiago ibili arren, giro bikaina izan zen aurtengo Pazkuetako jaietan. Musika Eskolako Orkestaren X. urteurrena ospatzeko, jaietako ostiral gauetan antzeztu zen The Lion King musika ikuskizuna oso arrakastatsua izan zen.

AHOZ AHO BELAUNEZ BELAUN

Jauriaritzako Hezkuntza sailak bultzatutako "Ahoz-ahoz, belanez belan" kanpaina aurkeztu zen Udaletxean maiatzaren azkenengotan. Sentsibilizazio kanpaina honen bidez, guraso eta gurasogaien euskararen aldeko jarre-
rak sendotu nahi ziren, seme-alabek euskaraz egiteko orduan gurasoek duten erantzunkizunaz konturagaraziz.



Arans-Gik 25 urte

Bergarako Arans-Gi gorren eskolak XXV. urteurrena ospatu zuen maiatzean. Besteak beste, ate irekiko jardunaldiak, hitzaldiak eta herri bazkaria antolatu ziren. Herri bazkaria maiatzaren 19an egin zen eta bertan Jose Antonio Agirrebeña Arans-Giko presidentea eta Edurne Telleria eta Begoña Aperribai omendu ziren.

Irukurutzetako erromeria

Kapirixok eta Aiton Txaboletako elkarteak, orain dela 80 urte azkenengo aldiz egin zen Irukurutzetako erromeria antolatu zuten Pago Bedeinkatuan, maiatzaren 5ean. Eguraldia lagun, jende ugari elkartu zen, baita trikitalari eta bertsolariak ere. Sald hartu ondoren, erromeria izan zen.



P R O T A G O N I S T A K




ELSA RODRIGUEZ

Jakina dendakoa eta Sebastian Imaz, Bedelkarreko presidente eta idazkari izendatuak izan ziren, hurrengo bi urteetarako, herriko dendariak egindako Batzar Orokorrean.

J. MARI REKONDO

1948. urtean lehen aldiz Bergaran toreatu zuen torero donostiarra omendu zuen Zenezaleak-ek. "Hildako lehen txekorra eta lehen muxua beti gogoratzen dira" esan zuen.



ELI ARRIETA

Ingeles Filologian lizentziatutako bergararrak Eusko Ikaskuntzak eta Udalak kaleratutako "Union Cerrajera. Ahozko iturburuak" beka eskuratu zuen.

1 9
9 6

abenduak 27 ◆ BERRIGARA ◆ urteari errepasoa



Kiñu

ARGAZKIDENDA

Urte berri on!!

Barrenkale, 35 Telefonoa eta Faxa: 76 58 05

1 9
9 6

abenduak 27 ◆ BERRIGARA ◆ urteari errepasoa



Algodonerako historiari buruzko liburua aurkeztu zen ekainean.

Algodonerak 150 urte

"El mundo azul de Tavex: 150 años tejiendo la historia, 1846-1996" liburua aurkeztu zen Udaletzeko Pleno Aretoan ekainaren 13an. Algodoneraren 150. urteurrena ospatzeko argitaratutako liburuaren aurkezpen ekitaldian, Bergarako Alkatea, Gipuzkoako Diputatu Nagusia eta Tavex-eko buruak izan ziren, besteak beste. Tavesa eta Algodonerako ELA eta LAB sindikatuetak langileek, bestalde, Bergarako lantegietan inbertitzeko eskatzeko enkartelada egin zuten San Martin plazan.

ESAN ZUTEN...**FERNANDO IDIGORAS**

"Bergaran 1.400 odol-emale inguru gara, odol-emale gehien dituen herrietako bat"

ODOL-EMALEA**IÑAKI IRIZAR**

"Errekak aberastasun ikaragarria ematen dio herriari. Ordua da hori baloratzen hasteko"

BIOLOGOA**ASIER GARITANO**

"Hegoaldean, partidu bat irabaziz gero, nahi duzuna egin dezakezu. Bi galdu ezker, etxetik ere ezin zara irten"

FUTBOLARIA**Udala euskalduntzen**


"Administrazioan euskara bultzatu erabiliz" plan pilotoa aurkeztu zen Udaletxean ekainean. Bergaran eta Antzuolan martxan dagoen planaren bidez, politikoen artean eta udal langileen artean euskararen erabilera areagotu eta udalaz kanpoko harremanak euskaraz egin nahi dira.

**Xake taldeak 25 urte**

Bergarako Xake Taldeak hainbat ekitaldi antolatu zituen ekainean 25. urteurrena ospatzeko. Aldi bereko xake partiden Guinness errekorra hausteko ahaleginak egin zituzten baina ez zituzten 5.000 jokalaririk bildu, 4.002 baizik. Txapelketak, erakusketak eta ikastaroak ere antolatu ziren.



Labegarieta z/g
☎ 76 42 57



*Errege bezperan zabalik egongo da.
Igandeetan zabalik, enkargatuz gero.
Ezkontzak, bataioak...*

URTE BERRI ZORIONTSUA IZAN DEZAZUELA!!

MOTZEAN

PRESOEN ALDE GOSE GREBAN

Garbiñe Ibabe, Aitor Aranzabal, Haser Polvorosa eta Etor Larrañaga bergararrek, euskal presoen giza eskubideen aldeko gose greba txandetan parte hartu zuten Donostiako Artzai Oneko elizan.

TABERNA ETA JATETXEAK BEDELKARREN

herriko 30 taberna eta jate-txe Bedelkar-en sartu ziren ekainean. Herria bizitzeko, hainbat ekitaldi antolatzeko asmoa azaldu zuten.

GALEPERREN HAZTEGIA

San Juango Galeperren haztegia itxi eta Mungia era-man zen, beharrezko segur-tasun neurriak betetzen ez zituelako. Langile gehienak kalean geratu ziren.

ARANZADI IKASTOLAK 25 URTE

Aranzadi Ikastolaren 25. urteurreneko jaialdia izan zen Udal Pilotalekuan ekainaren 21ean. 750 ikaslek parte hartu zuten jaialdian eta frontoia toperaino bete zen.

GIMNASTAK ESPAINIAKO AZPITXAPELDUN

Aranzadi Ikastolako gimnasia erritmikoko alebin taldeko neskatilak bigarren postua lortu zuten Palma de Mallorcan jokatu zen Eskolarteko Espainiako Txapelketan.

**Udal intsumisoen elkartean**

Bergarako Udala, Euskal Udal Intsumisoen (EUDIMA) elkartean sartzea eta elkartearen estatutuak onartzea erabaki zuten Udalbatzak ekainaren 3an, HB eta EAren aldeko botuekin. EAJ abstenitu egin zen eta PSE-EEK ezezkoa eman zuten. Mikel Eguren (HB) eta Juan Mari Garitano (EA) EUDIMAN Bergarako Udalaren ordezkariak izateko izendatu ziren.

Bergarako aerobitona

90 emakume inguruk (50 bergarar) hartu zuten parte ekainaren 2an Kiroldegian Bolu eta Giartzu gimnasioek antolatutako aerobic maratoin. 2 ordu iraun zuten eta parte hartzaileek nahiko izerdi bota zituzten Josean Iñarra, Idoia Moreno, Gemma Otaño eta Mari Karmen monitorean aginduetara.



P R O T A G O N I S T A K

**JESUS MARIA GARCIA**

28 urteko bergararrak, Euskadiko Kulturismo Txapelketa irabazi zuen eta Estatuko Iparraldeko Komunitateen Txapelketan 3. postuan sailkatu zen.

UNAI LOPEZ

Ikasle bergararrak, Euskal Herriko beste 25 ikaslerekin batera, Euskadiko Batxilergo Sari Nagusia lortu zuen. REMeko lehen hiru kurtsuetan 8,5eko batazbestekoa zuen.

**PERU SAGARNA**

Lokatza Sumofic taldeko txirindulariak Gipuzkoako lehen mailako kadeteen txapelketa irabazi zuen. Jon Unamuno, berriz, 2. sailkatu zen jubenil mailako Gipuzkoako itzulian.

- Proiektuak
- Dekorazioa

Rincones

dekorazioa



Joakin Intza

Jeltzalea, 72 urte. Bizitza guztia eman du abertzaletasunaren alde lanean. Gaztetan EGI eta ELAko buruzagia izan zen Bergaran. Venezuelan 15 urte eman zituen, erbestean Erresistentziaren alde lanean. Donostian bizi da.

- Radio Euskadik saria eman zizun irailean, irratia Venezuelan sortzeko egindako lanagatik.

- 50 urte betetzen dira aurten, erbestean Radio Euskadi sortu zela eta 35 urte Venezuelan Radio Euskadi sortu zela eta nik Venezuelan irratia sortzeko lanean jardun nuenez, niri eta Joxe Mari Azurzari saria eman ziguten.

- Ze lan egin zenuen Venezuelan?

- Arlo ekonomikoaz arduratu nintzen. Dirua batzeko kinielak antolatzen eta metxeroak edota oroi-garriak egiten jardun nuen.

- Euskaldun asko zegoen orduan Venezuelan?

- 10.000 bat lagun. Gerra ostean Venezuelara joandako euskaldun asko, gerra denboran eta Errepublikara garai buruzagi izandakoak ziren, ondo gertatutako jendea, partiduko jefe izandakoak. Horregatik oso inportantea izan zen Venezuela Erresistentziarentzat eta erbestean zegoen Jaurlaritzarentzat.

- Venezuelara joan aurretik, ordea, ihesik

ibili zinen hemen.

- Bai, 1948 eta 1951 urteen artean, hainbat huelga antolatzen eta ibili nintzen. ELA eta EGiko Bergarako arduraduna nintzen orduan eta Guardia Zibilak ezagutzen ninduen. Harrapatu aurretik hemendik alde egin behar izan nuen. 1953an alde egin nuen Bergaratik eta 22 hilabete eman nituen ihesik hara eta hona: Bilbon, Tuteran, Zaragozan, Bartzelonan, Donostian...

- Ondarretako gartzelako azken presoetako eta Martuteneko lehenengoetakoa izan zinen.

- Felipe Agirregabiriak, Gotzon Mujikak, Martin Arangurenak, Patxi Azkar-gortak eta nik neuk inau-

guratu genuen Martutene 1947. urtean. 1942an, 18 urteko mutil koskorrak ginela, Eusko Gaztedin geunden dagoeneko. Gerroago, ostera, paskin batzuk kaleratzeagatik zigortu egin gintuzten. Hiru urteko zigorra jarri ziguten, baina indultuak zirela eta, ia bi urte egin genituen, 1948ra arte. Nik Bilboko gartzelan eman nituen azken hilabeteak, hara trasladatu baininduten.

- Noiz joan zinen Venezuelara?

- 1956ko otsailean Iparraldera pasatu nintzen. Baionan egon nintzen lehenengo eta gero Paris inguruan. Handik Venezuelara joan nintzen 1956ko maiatzean. Bergarrek jasotako diruari esker bidali ninduten Venezuelara. Bergarar izateaz harro nago. Begira, Sabinoren ondoren, abertzaletasunari dagokionez, Bergarak izan duen historia herri gutxik izan dute. Bestalde, Masterreka eta Zubieta aldean batez ere, gizon abertzale haundi asko izan ditugu. Eta emaku-

meak? Bergarako emakumeak nortasun haundikoak izan dira beti. Chapeau!!

- Noiz arte egon zinen Venezuelan?

- 1971n Joseba Rezolak, Erresistentziako jefek, bueltatzeko agindua eman zidan eta irailean heldu nintzen Donibane Lohitzunera. Joseba Rezola sekulako gizona zen, gizon haundia, ez dakizue zenbat galdu genuen abertzaleok hura hil zenean.

- Gaur egun nola ikusten duzu goera?

- Gauzak asko aldatu dira. Gaztea nintzenez euskara zen niretzat inportanteena. Orain, ordea, euskararen kontua aldrebestuta dago. Denek euskara ikasten badute, kultura eta historia aldetik ondo egongo da, 10.000 urterako euskara edukiko dugu eta; baina abertzale ikuspuntutik begiratuta, zer ekarriko digu horrek? Espainolek euskara ikasten badute, non dago diferentzia? Nik nahiago dut abertzale bat euskara ez dakiena, 10 euskaldun

abertzale ez direnak baino. Gure maisuak, Sabino Aranak, esaten zuen bezala: "Espainolek ikasten badute gure hizkuntza, beste bat asmatu beharko dugu!!".

- Helburua independentzia lortzea da?

- Euskadi Askatuta.

- Eta zein da hori lortzeko bidea?

- Europaren bitartez lortu dezakegu, Erregioen

"Eta emakumeak? Bergarako emakumeak nortasun haundikoak izan dira beti. Chapeu!!"

Europa eginez. Zaila da, Estatuek ez dutelako beren nortasuna galdu nahi, baina bidea hori da.

- Euskal Herrian pakea lortzeko zer egin daiteke?

- KASeko buruzagiak, oker dabiltzala konturatzen ez diren bitartean ez dago ezer egiterik.



Lurrindegia
Edertze aretoa

alga

Ibargarai, 10
☎ 76 00 85

CLINIQUE

PARFUMS
GIVENCHY

ROCHAS
PARIS



BOUCHERON
PARFUMS
PARIS

PAYOT
PARIS

GUCCI

AURPEGIKO AZALAREN GARBIKETA. GORPUTZ IGURZTIAK.

ZERA BIDEZKO DEPILAZIO HOTZ ETA BEROA. DEPILAZIO ELEKTRIKOA.

MAKILAIA. SOLARIUMA

1 9
9 6

abenduak 27 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa

Herritarren foroan balorazioa egin zen

Euskal Herrian bizi den gatazka egoera aztertzeko Bergarako Elkarriko tailerrak bultzatutako herritarren foroak, egindako lanaren balorazioa egin zuen uztailean. Foroan ideologia ezberdineko 25 bat herritarrek hartu zuten parte eta EA, EAJ, HBren eta Jesus Egiurenen (PSE-EE) pake proposamenak aztertu zituzten. Foroetako partaideek euskal gatazkaren agenteen arteko inkomunikazioa eta elkarrizketarako borondate falta somatu zuten. Bestalde, lau proposamenek puntu amankomunik bazutela adierazi zuten, laurretan aitortzen baitzen Euskal Herria eta Estatuaren arteko gatazka politikoa dela eta egoerari aurre egiteko formula berriak aurkitu behar zirela.



25 bat herritarrek hartu zuten parte foroan.

ESAN ZUTEN...



MIREN ZURBANO

"Drogaren arazoa ezagutzen ez duen jende asko dago eta kontzientziatu beharra dago"

DROGAREN KONTRAKO ELKARTEKOA

JESUS ARANZABAL

"Berriz jaioko banintz txirrindulari jaioko nintzateke duda barik"

TXIRRINDULARI IZANDAKOA



PAKITA URKAREGI

"Oporrak patxadaz hartu beharrean, konturatzeke presiopean murgiltzen gara askotan"

PSIKOLOGOA

Santa Marina eta herriko lau ermita bisitatu zituen Kultura Diputatuak

Egoera kaskarrean dauden Santa Marinako kanpandorrea eta Elixamendi, Santa Katalina, San Juan eta San Matei ermitak bisitatu zituen uztailearen 17an Koruko Aizarna Kultura Diputatuak. Guztiak konpontzeko dirulaguntzarik ez zegoela adierazi bazuen ere, Santa Marinako kanpandorrea konpontzeko behar diren 30 milioi pezetako presupuestoari aurre egiteko dirulaguntzak emango zituela adierazi zuen, "Diputazioa Santa Marinarekin zorretan" zegoela esanez.



Egoera kaskarrean dauden herriko lau ermita eta Santa Marina bisitatu zituen Koruko Aizarnak alkatearekin batera.

ERLOJUDENDA

Urte berri zoriontsua izan dezazuela!!

AINH



A

Boni Laskurain ☎ 76 47 40

BITXITEGIA

M O T Z E A N

TURISMO BULEGOA ZABALDU ZEN

Uztailaren 8an zabaldu zen Turismo Bulegoa eta irailaren 2ra arte zabalik izan zen. Bestalde, Bergarako ibilbide artistikoen gida kaleratu zuen Udalak. 12 orrialdetan in-tereko 10 punturi buruzko informazioa jasotzen zuen, lau hizkuntzatan. 4.000 ale kaleratu ziren.

UZTAIL EURITSUA

Uztaileko lehen egunetan 40 litro metro karratuko jaso ziren Bergaran. Udal igerilekuek eta Turismo Bulegoak eguraldi txarraren ondorioak jasan zituzten, jende gutxi ibili baitzen.

ORFEOIA IRABAZLE

Bergarako Orfeoia San Vicente de la Barquerako Marinela Kantuen XXIX. lehiaketa irabazi zuen uztailaren 5ean. Urrezko Marinela Lira eta 200.000 pezeta saria jaso zuen David Azurzak zuzentzen duen abesbatzak.

345 HAUR UDALEKUETAN

Herriko 345 neska-mutiko ibili ziren Xipizaro ludotekak uztailan antolatutako Udalekuetan. Era askotako jarduerak antolatu ziren.

ARITZ BERRAONDO ELGETAN TXAPELDUN

Aritz Berraondo pilotari antzuolarrak irabazi zuen Elgetako lau t'erdiko afizionatu mailako txapelketa.

**Drogaren kontra**


Drogaren aurkako Nazioarteko eguna ospatu zen Bergaran uztailaren 12an. "Ikas dezagun menpenkotasunik gabe bizitzen" lelopean, 100 bat lagun bildu ziren manifestazioan. Xamatx eta Aritzetaren emanaldiak ere izan ziren.

Orfeoi Donostiarra Bergaran

1896. urtean Arrasaten ospatu ziren Euskal Jaietan gertatu zen moduan, Orfeoi Donostiarra parada egin zuen Bergarako Udaletxean uztailean, eta bi abesti eskaini zituen Arrasatera abiatu aurretik.




P R O T A G O N I S T A K

**XABIER ZUBIZARRETA**

Santa Marinako parroko atxabaltarrak apaiz egin zeneko zilarrezko eztaiak bete zituen uztailan. Saturraranen egin zituen apaiz ikasketak.

LORENZO LASKURAIN

Udaletxean administrari lanetan 20 urte lanean eman ondoren, uztailan jubilatu zen 65 urte bete zituenean.

**GOIO ARRIETA**

35 urteko atxabaltarra BKEko futbol talde nagusiko entrenatzaile izateko izendatua izan zen, Jabi Perezen ordezkari. Bergaran jokatzeko ibilia da eta iaz UDA entrenatu zuen.

**GAZTELU****BURDINAKI DENDA**

Urte berri on

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

1 9
9 6

abenduak 27 ◆ BERRIGARA ◆ urteari errepasoa

Frontoia eta pilota harrobia

Udal Pilotalekuak 1995ean zuen etorkizun nahasia bideratzen hasi da 96aren bukaera aldera Udalak eta Asegarcetek profesional mailako partiduak programatzeko hartutako akordioa dela medio.

Pilota munduko enpresen arteko gerraren ondoren Asegarceren monopolioa iritsi zen, eta Udal Pilotalekuak Empresas Unidasen krisia eta Eskutaldearen esperientzia laburrur ezagutu zituen. Momenturik egokiena Udalak instalazioaren jestioa bere gain hartzeko. Helburua goraipagarria zen, alde bietatik; Bergarak bere tokia nahi zuen eskuzko pilota munduan, nahiz eta Asegarcete eta telebistak iritsi zirenetik bukatuta egon Udal Pilotalekuak, Astelenak, Beotibarrek eta beste batzuk konpartitzen zituzten neguko ohizko zirkuituak. Eta gainera, Udal Pilotalekuak bete egingo luke horrela bere izenak dioena. Udal Pilotalekuak izan zuen tokian jartzeko helburuarekin, Udalak Asegarcerekin negoziatu beharra izan du, baina profesional mailako zirkuitura bueltatzeko ahalegin horretan ahaztuta geratu da pilotaren zatirik garrantzitsuenak: promozioko pilota.



JUAN ANTONIO MIGURA

Harrobiko pilotariet beste nonbait jokatu zutela esanaz mehatxu egin behar izan zuten, zentzu piska bat bueltatu eta Udal Pilotalekuaren entrenatzeko posibilitatea izateko. Entrenamenduetan sortutako gastuak huskeria bat dira berrikuntza-lanetan gastatutako 50 milioien ondoan, eta Asegarcete beso zabalik hartzeko errebotea metro bat atzeratzen eta pilotalekuak egokitzen egindako gastuekin konparatuta.

Pilotaren munduan, klubak eta musutruk harrobia egiten dutenak dira beti galtzaileak. Pilotaren oinarria dira, eta hauek izan ezean aspaldi desagertua litzateke pilota.

Kirol munduan oso zabaldua dagoen kezka da harrobiari kasorik ez egitea, batzuk negozioa egin dezaten beti baitago lana egiten duen norbait. Futbolak arautu egiten ditu prestakuntzarako baldintzak, eta jokariengatik ordaintzen diren milioien ondorioz, neurri txikian bada ere, iristen zaie laguntzaren bat klubei ere. Horrelako zerbaiten esperantza ere badu pilotak, eurak senide pobreak direla kontuan hartuta hainbeste eskatzen ez badute ere, pilotariet egiten duten lana errekonozituko den esperantza eta

enpresaren batek eskuzko jokalaria bat fitxatzen duenean horren portzentaia bat klubari iritsiko zaion esperantza ere badute behintzat.

Lehen mailako profesional guztiek, gora iritsi ahal izateko, klubaren eta pilotazale batzuen laguntzaren premia izan dute. Baina partiduak jokatzeko prestakuntza profesionalak daudenean enpresak ez dira iraganaz gogoratzen, eta txapelketen bidez pilotalekuak betetzea besterik ez dute pentsatzen. Udalak, panorama hori ikusita, diskriminaziorik ez egoteko ahaleginak egin behar ditu; eta instalazio mailan behintzat, poz pertsonalak besterik irabazten ez duten horien lana erraztu beharra dauka. Ongi etorria profesional mailako pilota, baina ez ahaztu harrobiko pilotak daukala lehentasuna. ■



“la Caixa”

CAJA DE AHORROS Y PENSIONES
DE BARCELONA

ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON!!

BARRENKALEA, 30
TFNOA: 76 41 16

GIARTZU

GIMNASIOA • ESTETIKA ZENTRUA

*Bihotz - bihotzez
1997 zorientzua
izan dezazuela
opa dizuet.*

Maria del Puerto



- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak

UGARTE

**ALTZARIAK
DEKORAZIOA**

AROSZTEGIA



San Juan, 1 (Barruti) • BERGARA • Telefonoa eta faxa: 76 54 91



MARGA

JANTZIDENDA


*Estiloak, dotoretasunak
eta prezioek
bereizten gaituzte.*

MARGA modak
San Pedro, 20. Tfnoa: 76 05 37

Zorionak eta urte berri on!!

Automobil aseguruak

Mapfre abantailak



Zure kotxeko
aseguruaren
abantaila buruzko
zehaztapen guztiak
emango dizkizugu.
**Zatoz eta
galdetu!!**

 **MAPFRE
MUTUALIDAD**

Simon Arrieta 3, Bergara
☎ 76 28 79 / 76 18 80

ELKAR ELEKTRAGINTZA

Zure
zerbitzura!!



Mota guztietako instalazioak



76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

ATEZ ATEKO ENPRESETAKO PAKETERIAN ESPEZIALISTAK



BERGARA (GIPUZKOA)

San Juan Erreka. Elgetara bidea.

TEL. 71.97.10.11



Poliketaren gurtzaria eta bonakero

Futbolaren feria

1 9
9 6

Jakina da futbolak egungo gizar-tean duen eragin soziala, begibistakoak da.

Badirud futbola gus-toko duenak zerua irabazi duela. Asteak zazpi egun baditu, zortzitan futbolarik blai uzten gaituzte medio-ek. Hori bai, informazio hau jaso nahi ez duenak, ez dauka zertan aukeratu, bai-na egia da ere, gelditzen zaizkion aukerak murrizten direla.

Guztion ahotan dago esa-tea komunikabideek kirol arloan duten eragina nabar-mena dela, baina sarritan ez gara konturatzen norai-no. Adibiderik esangurat-suena dugu Ronaldo brasil-darraren inguruan sortutako demasako infor-mazioa.

Ronaldok goia jo duenean Bartzelona taldeko hamai-kakoa berak bakarrik osat-zen zuela esan zitekeen (Bobby Robsonen taldea osatzen duten jokalariek ezer hobeagorik mereziko ez balute bezala).

Ondorio horretara heltzeko kirol prentsa irakurri beste-rik ez dago, izan ere hama-bost egunetan zehar porta-da guztietako protagonista izateko erreztasuna baitau-ka. Eta hori ez da gogorre-na, lesionatuta egonda ere Kataluniako kirol egunka-riek bere argazkiren bate-

kin zabaltzeko dudarik ez dute. Edota zer esanik ez dago, abenduan Espainiako selekzioak partidua zuela eta asteburuan liga txapel-ke-tarik egon ez arren, hort-xe ikusi dugu Ronaldo "Ronhaldina" ren alboan eta kirol prentsa larrosari paso eman diote. Munduko jokalaririk onena dela diote guztiek, bere kalitatea eztabaida ezina da, baina gainontzeko joka-lariak ere primerakoak dira eta behin eta berriz itzalpe-an gelditu dira medioek larregi puztu nahi izan dute-lako aurrelariaren jokua. 2.500 milioi pezeta ordain-du dituzte eta gainera prentsak dirua irabazteko duen etekin iturririk eman-korrena da. ■



MARIA GOMEZ

abenduak 27 ◆ BERRIGARA ◆ urteari errepaso

NINIKA

LOREAK MUNDU
OSOAN



INTERFLORA

loradenda

Urte berri zoriontsua izan dezazuela!



Bide ertzean zeuden hilarriak izan ziren kaltetuak gertatu zirenak.

17 hilarri puskatuta agertu ziren Osintxuko kanposantuan

Osintxuko kanposantuan 17 hilarri puskatuta agertu ziren abuztuaren azken egunean. Lazpiur lantegian ere 40 bat kristal apurtu zituzten goizaldean. Antza denez sagarrak erabili zituzten kristalak apurtzeko. Ion Citroen garajearen kanpoaldean zeuden bigarren eskuko hainbat kotxeko kristalak ere apurtu eta irrati aparailuak lapurtu zituzten. Osintxuarren artean amorrua eta etsipena nagusitu ziren hilerrian egindako txikizioen aurrean. Iosu Agirrezabal Osintxuko auzo alkateak ez zion gertatutakoari esplikaziorik aurkitu.

Kofraixetan jaigiroa nagusi

Ganberro batzuen ekintzak, hala ere, ez zuen Kofraixetako jaigiroa baretu, Osintxuko jaietan, jaigiroa izan baitzen nagusi. Ohizko txekor hilketa, rock kontzertu eta dantzaldiez gain, osintxuar, antzuolar eta bergararren arteko herri kiroleko desafiokoak ikusmin handia sortu zuen. Frontoian bildutakoek, antzuolarren nagusitasunaren lekuko izan ziren. Harrijasotze, txinga, kaskara batze, saku karrera eta upelaren probak jokatu ondoren, soka-tiran erabaki zen irabazlea.



Iazko udaren pareko bisitak Turismo Bulegoan

Uda partean zabalik izan zen Turismo Bulegoan iazko udaren pareko bista kopurua jaso zen aurtengo udan. Guztira 1.255 kontsulta egin ziren, uztailetik irail hasierara arte. Abuztuan 901 kontsulta jaso ziren. Gehienak Kataluniatik etorritakoenak, baina baita Euskal Herriko hainbat puntutatik etorritakoenak ere.

Azken urteetako abuzturik euritsu eta hotzena

Beste urte batzuekin konparatuz, aurten euri gehiago egin zuen, 101 litro metro karratuko jaso baitziren Bergaran. Eguzkia ia ikusi ere ez genuen egin abuztu osoan, egun pare batean edo izan ezik. Temperaturak ere azken urteetako feskoenak izan ziren. Normalean uztail eta abuztuko batazbestekoa 20-21 gradukoa izaten bada, aurten 19 graduko batazbestekoa izan genuen.

HERRAN ETXEA

ELEKTRODOMESTIKOAK
Matxiategi, 3
☎ 76 12 22

*Urte berri on eta zoriontsua
izan dezazuela!!*

SUKALDE ALTZARIAK
Matxiategi, 4
☎ 76 37 53

M O T Z E A N

BIESCASEKO TRAJEDIA


Duda barik, Biescaseko tragedia izan da aurtengo udako gertakaririk azpimarragarriena. Biescaseko Las Nieves kanpinean izandako uholdeen ondorioz, 70 hildako inguru izan ziren, tartean hainbat euskaldun. Trajedia gertatu zenean bergararik ez zegoen kanpinean. Bai, ordea, Begoña Azkarate 57 urteko antzularra eta bere senarra. Begoña hil egin zen. Bere senarrak suerte haundiagoa izan zuen eta ur haundietatik bizirik irten zen.

ARITZETA ETA XAMATZEKOAK EUROPAN ZEHAR

Aritzeta abesbatzako eta Xamatz dantza taldeko 82 lagun Europan zehar ibili ziren abuztuan. Britainia, Holanda, Belgika eta Paris bisitatu zituzten eta bi taldeek elkarlanean prestatutako emanaldia eskaini zuten Bruselan eta La Hayan.

BALAITUSEN HIL


Jose Ramon Lete mendizale osintxuarra Pirinioetako Balaitus mendian hil zen abuztuaren 16an, bihotzekoak jota. Gailurrean, deskantsatzen zegoenean eman zion bihotzekoak. Jose Ramon Lete lagun batekin igo zen Balaitusera eta helikopetero frantses batek bere gorpua Panticosara eraman zuen, handik etxera ekartzeko.



Iker Etxeberria eta Roman Laskurain mendizale bergararrak Txinako Muztag Ata (7.450 metro) mendian izan ziren abuztuan. Bi saiakera egin ondoren, ezin izan zuten gailurra zapaldu, haize gogorak ez zielako laga. Hala ere, hila-bete inguru eman zuten paraje haietan eta atera zituzten argazki ederren lekuko, 1997ko egutegiko azalerako Pol-Pol Mendizale taldeak erabili duen aldameneko hau duzue.

Txinatik bueltan

Iker Etxeberria eta Roman Laskurain mendizale bergararrak Txinako Muztag Ata (7.450 metro) mendian izan ziren abuztuan. Bi saiakera egin ondoren, ezin izan zuten gailurra zapaldu, haize gogorak ez zielako laga. Hala ere, hila-



Bisitariak informatzeko panel interaktiboak

Udal Pilotalekuaren kanpoaldean, Ibargarai ibilbidean, jarri zen panel turistiko informatikoak ez zuen erantzun oso onik jaso. Mankomunitateko hainbat udalek Eskoriatzako Irakasle Eskolarekin sinatutako hitzarmenari esker jarri zen panel interaktiboa, baina ez zuen behar den moduan funtzionatu.

Kalkutako Ama Teresarekin

Argazkian agertzen diren, Iñaki Etxarri, Yolanda Perez eta Cristina Gonzalez bergararrak Calcucutako Ama Teresa Indian ikusteko aukera izan zuten abuztuan. Argazkia, eurekin joan zen Luis Mari Sotok atera zuen.




**ERAIKUNTZA
ETA TEILATUEN
BIRGAITZE ETA
KONPONKETA**

TXEBAZ S.M
Tfnoa: 76 54 14
Faxa: 76 57 36
Artekale, 25 behea

**IGELTSERITZA
ITURKINTZA
GASA
KALEFAZIOA**

1 9
9 6

abenduak 27 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa



Fagorrek San Juanen dituen lursailetan jarriko da martxan enpresa berria.


Fagorrek 400 lanpostu berri sortuko ditu San Juanen

Fagorrek eta Vaillant enpresa alemanak San Juanen martxan jarriko duten lantegian 400 lanpostu berri sortuko dituztela jakin genuen irailean. Inbertsioa 3.000 milioi pezetakoa izango omen da eta bertan, gas bidezko ur berogailuak egingo dira. Fagor Elekatragailuak eta Vaillant enpresek %50nako partizipazioa izango dute enpresa berri honetan. Produzktzioa datorren urtean jarriko litzateke martxan eta 1998. urterako Bergarako lantegian 800.000 berogailu egingo lirateke, Vaillant eta Fagor Elekatragailuak merkatuko liderrak bihurtuz gas bidezko ur berogailuen sailean.

ESAN ZUTEN...



JON ANDUEZA
"Prensa lokala oso mesedegarria izan da euskararentzako. Izugarritzko etorkizuna dauka"
KAZETARIA



ANDER BERRAONDO
"Realean bost urte eman ondoren, oso gogorra egiten da ez duzula jarraituko entzutea"
FUTBOLARIA




JOXEAN IZA
"Museotako eta galerietako giroa ez zait gustatzen, mugimendua eta akzioa gustatzen zaizkit"
PINTOREA



Angiozarko frontoia estaltzeko proiektua

Angiozarko pilotalekua estaltzeko proiektua Donostiako arkitekto talde bati adjudikatu zitzaion irailean. Frontoia estaltzeaz gain, hainbat konponketa egin eta aldagelak eraikiko dira. Lanak datorren urtean hasiko dira eta proiektuak 50 milioi pezetako aurrekontua du.



Sutea movillasen

Irailaren 13an sutea izan zen Urteagako Movillas enpresan. Tejabanako zati txiki batek su hartu zuen eta suhiltzaileak etorri behar izan ziren sua amatatzera. Kalte txikiak izan ziren eta lanean ez zen etenik egin.



URTE BERRI ON!!

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

M O T Z E A N

GAS LEHERKETA JANTOKI PUBLIKOETAN

Boni Laskuraineko jantoki publikoetako sukaldean gas leherketa izan zen irailaren 19an. Gas leherketa sukaldeko labea eta gas instalazioaren ikuskapena egiten ari zirenean gertatu zen. Ondorioz, errebisioa egiten ari zen teknikoak eta Arantxa Kortazar sukaldariak hainbat erredua jasan zuten gorputzean, baina ez zituzten zauri larriarik izan, Gurutzetako ospitalera eraman bazituzten ere. Leherketak sukaldean kalte txikiak eragin zituen. Jantoki publikoetan 130 lagunek bazkaltzen dute egunero.

BERGARAKO ARTISTEN BATZAR OROKORRA

Beart-ek, Bergarako Artisten Elkartek, Batzar Orokorra egin zuen irailaren 30ean. Luis Laskurain presidentek dimisioa aurkeztu zuen eta Bearteko bazkideak Udalari lokal bat eskatzekotan geratu ziren.

ANTZUOLA ETA AIHERRA BAT EGINIK

Antzuolako 40 bat lagun Behe Nafarroako Aiherra herrian izan ziren irailaren 15ean. Antzuola eta Aiherra (Ustaritz ondoan dagoen 800 laguneko herria) anaikidetuta daude orain dela 11 urtetik eta bi herrietako biztanleak urtero elkartzen dira, urte batean Antzuolan eta bestean Aiherran.



San Martin ederrak

Inoiz baino jai egitarau osotuagoa prestatu zen aurtengo San Martinetarako. Ohizko danborrada eta su artifizialez gain, txekor jana, mexikar festa, eta antzerkia ere izan baitziren, besteak beste. Barazki, lora, fruitu eta gazten lehiaketan ere jende ugari ibili zen.


1 9
9 6

“Peito”ri ongi-etorria

Pedro Belastegi “Peito”ri ongi-etorria eskaini zitzaion irailaren 19an San Martin plazan. “Peito”k bost urte eta bederatzik hilabete eman zituen estatuko hainbat espetxetan eta irailaren 18an irten zen Caceresko gartzelatik. Plazan egin zitzaion ongi-etorrian hainbat opari jaso zituen.



P R O T A G O N I S T A K




ALEX LABAIEN

31 urteko bergararra Udal Euskaltegiko zuzendari izendatu zuten datozen 3 urteetarako, Maria Dolores Lete ordezkatzuz. Zazpi urte daramatza Udal Euskaltegian.

MARIAJE ZABALETA

29 urteko Enpresaritza lizentziatuak, Costa Ricako Talamakako indigenen fruta esplotazioei ahalik eta etekin haundiena ateratzeko planta prozesadora bat garatzeko proiektuan parte hartu zuen.



J. LUIS APERRIBAI

Bergararra, Angiozarko parroko izendatu zuten, Esteban Munillaren ordeiz. Jose Maria Setienek irailaren 15ean Angiozarrera egindako bisitan hartu zuen kargua.

abenduak 27 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa

Gabon egun zorientsuak izan ditzazuela!!

Gracian

Bidekurutzeta, 6
Tfnoak: 76 10 25

Usaindegia - Mertzeria

Urte berri on!!



David Azurza

Arte Ederretan lizentziaturiko 28 urteko tolosar honek, 4 urte beteko ditu urtarrilean Bergarako Orfeoiaren zuzendaritzan. Bere ustetan orain basiko dira urte hauetan egindako lanaren fruituak heltzen.

Horren lekuko, Bergarako Orfeoiak San Vicente de la Barquerako Marinel Kantuen lehiaketa irabazi izana.

- Nola baloratzen duzu Orfeoiarekin egindako lana?

- Erantzunkizun haundia izan zen Orfeoiaren zuzendaritza hartzea. Ni etorri nintzenean Orfe-

oiak ez zuen aktuazio askorik eta diziplina aldetik (entsaiutan adibidez) lan egin beharra zegoela ikusi nuen. Korua forman egoteko konstantzia behar beharrezkoa da; konstantziarik ez badago, ezin dezakezu kalitaterik eskeini. Jendea laister konturatu zen lan asko zegoela egiteko eta gogorrena behar bada jendea nik proposatutako lana baliogarria zela konturatzea izan da. Gauzak zure modura egiteko denbora behar da eta lau urte hauetan lan intentsiboa egin dugu. Azken batean hori da diziplina, guztiak ildo beretik joatea.

Horrela gauzak asko errezago egiten dira. Kantatzea sentsazio guztiz

pertsonala da eta horretarako denbora behar da.

- Eta emaitzak etorri dira...

- Koroarentzat oso interesgarria izan da egiten dugun lan hori jendearean erakustea. Horrelako lehiaketa batean ez da batere erreza nerbioak gaintzea baina hortarako izan gara lau urte lanean. Koroak esperientzia daukanean lortzen du nerbioak kontrolatu eta kalitatea ematea. Koroen munduan leku bat egitea ez da erreza, urteak behar dira. Eta San Vicenteko saria jasotzean gure lana errekonozitu dute eta horrek garantia bat erakusten du.

- Eta hemendik aurrera, zer?

- Kalitatea mantentzea izango da gure erronka nagusia. Gauzarik zailena hori izaten da, igotzea eta bertan jarraitzea. Baina hortarako ez dago sekreturik: lanean eta emanaldiak eskeintzen jarraitu eta Orfeoiko egitura sendotzea. Faltan? Koro askotan ikusten den arazoa: satiatzen zara Orfeoi Gaztea osatzen eta mutil gutxi datoz. Bai, tradizio korala betidanik izan da hemen baina astero lan egiteko ohitura hartzea beste gauza bat da.

- Publiko gazteagoari heltzea litzateke gaintu beharreko asignatura?

- Ez dut uste Orfeoia-ren gaia bakarrik denik, koro guztien arazoa da hori. Orfeoi Gaztekoek komentatzen dute zelan beren lagunek ez duten ulertzen nola etor daitezkeen abestera. Kontua da sartu, ezagutu eta ulertu zergatik ari diren 60 lagun serio-serio kantatzen. Baina eskoletan hori lantzen ez denez, ba gazte guztien arazoa da hori; ulertzea

zer misterio dagoen hor, kantatzea zergatik den interesgarria. Guretzat bizio moduko bat da eta hori ez bazu probatzen zaila izaten da ulertzea.

- Nolako errepertorioa dauka Orfeoia?

- Orfeoia urtetan obra haundiak landu izan ditu Orkestra Sinfonikoarekin. Nik ikusi nuen hori lortu ahal izateko gauza batzuk landu behar zirela eta hortarako Ganbarako Orkestarekin lantzeko Schuberten meza, Rutteren Requiem edo Pinkhamen Christmas cantata batekin hasi ginen. Nire ideia hemendik jarraitzea da eta hemendik pare bat urtera Orkestra Sinfoniko batekin lan batzuk egitea, gauzak ondo baldin badoaz behintzat. Hortarako kantitatea (abeslari kopuru bat), teknika eta esperientzia dira beharrezkoak.

- Beste proiekturik?

- San Martinen estankoprestatzen ari gara eta bestalde, urtarrilaren 5ean Donostiako Artzai Onaren elizan abestuko dugu. Ar-

tzai Onaren elizak bere lehen mendeurrena betetzen du eta hilero abestutako meza bat izaten da. Hain fetxa seinalatuan guri deitzea ohore bat izan da guretzat.

- Bi urte barru Orfeoia 75 urte beteko ditu eta bereziki ospatuko duzue hori, ez?

- Bai, bai, ekitaldirik inportanteenak 1998an izango dira. Urte horretan,

“Tradizio korala beti egon da hemen, baina astero lan egiteko ohitura hartzea beste kontu bat da”

irailean, Orfeoia sortu zeneko 75. urteurrena beteko da eta 98ko irailetik 99ko iraileira bitartean hainbat ospakizun antolatuko ditugu. Dagoeneko lanean hasi gara, oso urte berezia izango baita guretzat, bai Orfeoia bultzatzeko eta baita egitura guztia (Orfeoi Gaztea eta-

Barrenkalea, 24

Zubikua

Telefonoa: 76 10 16

Erregenetarako oparirik ederrenak..., ZUBIKUAN.

Gabon egun zoriontsu eta ilusioz beteriko urte berria opa dizuegu.

Erlojutegia

iRUDI

Bitxitegia



SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

Albeniz
ARGAZKIAK

Deco-textil

ZANGITU

Alfonbrak

Jean Louis David

ILEPAINDEGIA

JOXAN

Arraindegia



VENTANAS
SAN MIGUEL

ETXEPARE

BiLiNTX



**LAGUN ARO
RAC**

**IBARGARAI aldeko
Merkatarien Elkarte
BERGARA**

PUERTO DE LA CRUZerako **BIDAIA** eder bat, bi pertsonarentzako, mantenu osoarekin zozketatuko dugu gure bezeroen artean.

Zozketa 1997ko urriaren 10ean egingo da.



Egon
Kafetegia

CONGELADOS
7 MARES



**BOLiNTXO
KiROLAK**

Bergaraprint
INPRIMATEGIA



Flore Nirika

BOLiNTXO
OKINDEGIA



Uncelay
HARATEGIA

MULTIOPTICAS


J.LARRAÑAGA

winterthur

ASEGURUAK

URTE BERRI ON!!

NISSAN PRIMERA BERRIA



Automobil astun eta arinen konponketa

T. Blanco



ZERBITZU OFIZIALA

URTE BERRI ON!!

ERAKUSKETA ETA SALMENTA:

San Lorenzo Industria Poligonoa.
Amillaga, 22 BERGARA.

Telefonoa eta faxa: 76 17 85.

Erakusketako telefonoa: 76 51 35.

Alperrik galduta

PP-ren garaipenaren urtea, bahiketen urtea, kode penal berria martxan jarri den urtea, euskal

LAB ELAren urtea, euskal preso politikoen dispersioaren salaketaren urtea, Galindo aste batzutan kartzelan egon den urtea; komunikabideetan albiste iturri da Euskal herria, iturri horretatik askotan ur ustela edaten bada ere. 1996ko urte berri egunean Joxe Mari Aldaia zen Euskadi ta Askatasunaren eskutan. Urte zahar egunean bi izango dira. Lehenengo Ortega Lara atzeman zuten eta MPren aprietoaren ondoren Koxme. Aurten, bideo bat ere bahitu dute. ETAk proposatutako alternatiba demokratikoa herri-tarrei ezagutarazteko ahalegi-nari oztopo denak jarri zaizkio. Urte olimpikoan, dominak lort-zeko Indurain eta Olano ibili ziren bezain azkar hasi ziren trabak jartzen bideoa herriz herri emango zela jakitean. Jon Idigoras kartzelan sartu zuten eta 300 milioiko fiantza eskatu bideoa erakusteagatik eta HBk hauteskundeetarako prestatu zuen spota zentsuratu. Ustez, ustelkeriaren bidez abe-rastu direnak kalean utzi dituz-te (Urralburu, Aragon, Galindo eta abar luzea) eta aldiz ez daukatenei dirutza haundiak eskatu. Itoitzeko koordinadora-koei epaitegiak arrazoia eman zieten, proiketua legez kanpo-

koa dela adieraziz, baina lanak gelditzeko 24.000 milioiko fiantza eskatuz. Obra gelditze-ko aste santuan Itoitzekiko Elkartasuna taldekoek kableak moztu zituzten. Agintean dau-denei min handia egin zien ekintzak, Britainia Haundiko behi eroak baino astoratuago jarri ziren eta zortzi txori kaio-lan sartu zituzten hilabete bat-zutarako.

Eta horrelako obra publikoetan jasotako komisioak direla eta, kartzelan ziren Urralburu eta Aragon libre utzi zituzten fiant-zarik gabe. Otanok ordezkatu zituen PSNko zuzendaritzan, baina berak ere, dimititu egin behar Suitzan kontua bere ize-nean zela jakin zenean.

Ustelkeria kasuek faktura pasa diote PSOeri eta azkenean PPK hauteskundeetan garaipena lortu zuen juxtu izan bazen ere. Aurrean larogei pertsona era-man zituen Biescas-eko ur haundiak baino arriskitsuago. Frankisten semeak Gobernuan eta Aznarrek ezin irrifarrea ahotik kendu.

PNV, PPKin bat Madrilan, eta PSOekin sudurra tapatuta Gas-teizen. Parlamentu hau PNVren botuarekin, euskal presoak Euskal Herrira ekartzearen alde azaldu zenean, PPKoak asko haserretu ziren, Hondarri-biako alardean emakumeak parte hartzearen aurka konpai-nia batzuk egin zuten bezain sututa.

Presoak ekartzeko ahalegin

asko egin dira, baina PSOE eta PPK ez dute amore eman nahi. LAB eta ELA batera aritu dira maiatzaren 1ean eta presoan alde eginez. Gose grebak, urte osoan, kartzelan, kalean eta baita European ere. Turkian 12 preso kurdo hil dira gose gre-baren ondorioz. Hemen berdi-na gertatu behar al da presoan eskubideak bete daitezen? Irlandako bake prozesua eten egin da. ETA astebetez suete-nean izan zen udako atentatu ugarien aurretik.

Noraezean dabilena hemengo justizia da. Galindo kartzelan sartu zuten maiatzean, Casie-nello eta Saez de Santamaria jeneralak ere juezaren aurrera eraman zituzten gerra zikinean aritzeagatik. Galindo udaran libre zen. Tejero ere aurten jarri dute kalean. Gainera, hauek auziperatzeko beharrez-koak dituzten CESIDeko pape-rak sekretuak dira, baina jue-zentzat soilik, egunkariak ere argitaratu baitituzte. PPK ez du desklasifikatzeko asmorik.

Gutzia gutxi balitz, Bergarako juzgaduan ez dago epaile eus-kaldunik, ezta itzultzaierik ere. Edozein atzeritar bezala tratat-zen gaituzte. Ez dut Españan bizi nahi.

Beste urte bat pasa da, ez da ezer konpondu, urte zahar egu-nean bi pertsona izango dira bahituta, preso dauden lagunak Euskal Herri-rik urrun izango dira, Euskal Herriko kaleak sutan,... Euskal Herria Askatu. ■



JON ALTUNA

Iturkintza • Berogintza • Bainuak

Laskurain

Barrenkale, 35

☎ 76 24 89

URTE BERRI ON!!



1 9
9 6

abenduak 27 ◆ BERRIGARA ◆ urteari errepasoa



Merkataritzan euskararen presentzia areagotu nahi da.

Merkataritzan euskaraz


Merkataritzan euskara bultzatzeko planerako prestatu diren jarduerak aurkeztu ziren Udaletxean urrian. "Euskara Merkataritzara" kanpainak dendetan euskararen erabilera bultzatzeko helburua dauka eta iaz jarri zen martxan. Kanpainaren bigarren fasean dendariak euren lanetan euskara lantzeko aukera izango dute, Udalak testuen zuzenketa eta itzulpen zerbitzua eskainiko die eta, era berean, jendearen bistan egoten diren idazkiak diseinatuta eta euskaratuta banatuko zaizkie. Iaz 200 bat denda azaldu ziren kanpainan kolaboratzeko prest.

Gose greban. Jose Ramon Aiastui "Txerra" eta Iñaki Arietaleanizbeaskoa "Bixkai" preso bergararrak gose greban hasi ziren urriaren 1ean, euskal presoek Euskal Herriratzea, giza eskubideen errespetoa eta preso politikoen estatutuaren aitortpena edo preso gaisoen kaleratzea eskatzeko.

Euskalenen sorrera batzarra

Enpresa eta lantegietan euskararen presentzia areagotzeko sortutako Euskalan elkartearen sorrera batzarrean 200 bat lagun bildu ziren urriaren 9an Arrasateko Amaia antzokian. Euskalenen Deba Garaiko 20 enpresa sartuta daude eta proiektua Euskal Herri osoko enpresetara zabaldu nahi da, enpresetan idatzizko, ahozko eta

kanpoko zein barruko harremanak euskaraz egin daitezten.



Udazken neguko moda Jam aretoan

Urriaren 5ean Soziedad Alkoholika, Anestesia eta Koma taldeek eman zuten kontzertuarekin inauguratu zen Jam diskotekan, Udazken neguko moda desfilea antolatu zuten Bedelkarreko

14 dendak urriaren 12an. Diskoteka toperaino bete zen eta herriko *Top modelek*, Bergarako dendariak udazken eta neguan salgai izango dituzten jantziak erakutsi zituzten.

Industria hornikuntzak

U
UNIFE

Industriaren alde

MEMESA S.L.

M O T Z E A N

HIRUGARREN MUNDURAKO LAGUNTZAK

El Salvadorra eta Nikaragura, batez ere, bideartuko ditu aurten 3 milioi terdi Bergarako Udalak, urrian horrela erabaki baitzuen Udaltzak.

GALINDO GENERALAREN KONTRAKO MOZIOA

Galindo Generala "pertsona non garata" izendatzea erabaki zuen Bergarako Udaltzak urriaren 14an. Erabakiaren alde HB eta EA azaldu ziren eta EAjk kontra bozkatu zuen.

TAUN-TAUNEN AZKEN LANA

Tau-Taun Txotxongilo taldeak bere azken lana, "Uba-babel" izeneko, estreinatu zuen urriaren 20an Zabalotegin.

CHULILLAKOAK BERGARAN

Bergarara etorri ziren Chulillako La Lira Musika Elkarteko kideei harrera egin zien Udaltzak urriaren 31n.

KAIXO URA ERAKUSKETA

Gipuzkoako Ur Kontsortziok urari buruz prestatutako "Kaixo Ura" izeneko erakusketa ibiltaria Bergaran izan zen urriaren azken egunetan. Erakusketaren helburu nagusia urarenganako kontzientziazioa eta sentsibiziazioa piztea da. Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea, Ur Kontsortzioko presidentea da eta eskuartean dituzten egitasmoen berri eman zuen.

**Irala botatzen**

Urriaren amaieran hasi ziren Irala zine aretoa botatzeko lanak. 1970eko martxoan inauguratu zen zine aretoa eta 1986an itxi zuten. Botatze lanak jende askok jarraitu zituen gertutik. Iralaren lursailetan lokal komertzialak, bulegoak, apartahotela eta garajeak egingo dira seguruen.

Sindikatuak eta presoak

Presoak Euskadira ekartzeko manifestua LAB, ELA, STEE-EILAS, CCOOko Ezker Sindikala eta ESK-KUIS sindikatuek sinatu zuten urrian. Bergarako sindikatu delegatuen %61ak sinatu zuen 7 puntutako manifestua. Bestalde, LABek deituta, presoak Euskal Herrira ekartzeko itxialdia egin zen Udaletxean.



P R O T A G O N I S T A K



LUISA AGIRREZABAL

100 urte bete zituen urriaren 9an. Alkatearen eta lagun askoren bisitak eta telefono deiak jaso zituen, baita opari ugari ere. Osasun aldetik primeran eta oso umoretsu azaldu zen.

AITOR ZABALETA

Pilotu bergararrak bigarren aldiz irabazi zuen Mendiko Kotxe Igoeren Espainiako Txapelketa. Aitorrek datorren urtean berriz ere irabazi eta Europako Txapelketa korritzeko asmoa du.

**BIXENTE PAGALDAI**

Orain arte korritu diren Donostiako maratoiaren 19 edizioak hasi eta bukatu dituen bakarra da. Bere denborarik onena 2 ordu eta 29 minutukoa da. 1976.etik ez du hutsik egin Donostiako zitan.

P. Manso Optika

1 9
9 6

abenduak 27 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa



Lehendakaria MAYCen eta TTTn

Jose Antonio Ardanza Lehendakariak MAYC eta TTT lantegiak bisitatu zituen azaroaren 21ean. Jabier Retegi industria sailburua, Roman Sudupe diputatu nagusia eta Victoriano Gallastegi alkatearen laguntzaz, Lehendakariak 1942an sortu zenetik, MAYCek izandako ibilbidea ezagutu zuen Silvano Fumagalli CANDYko presidentearen eta Fermin Mendizabal MAYCeko zuzendariaren eskutik. 1993tik 1996ra bitartean MAYCen fakturazioa 9.000 milioitakoa izatetik 16.000 milioitakoa izatera pasa da. Gaur egun 558 langile daude MAYCen (101 ebentualak dira). Ondoren, San Juango TTT lantegia bisitatu zuen eta ekogenerazio makina berria inauguratu zuen. 72 langile eta 1.000 milioi inguruko fakturazioa dauka gaur egun TTTk.

ESAN ZUTEN...



AITZOL MUJIKA



"Bergaran zuzenean joteko lokalak falta direla uste dut, lokalik ez badago ez da jenderik irtetzen"

KANTARIA

BITTOR IRIGOIEN

"Dieta, kirola eta heziketa dira diabetesa kontrolatzeko elementu garrantzitsuenak"

MEDIKUA



MIKEL ANDUEZA

"El Salvadorren gerra osteko egoeran daude, eta askotan gerra baino gogorragoa izaten da"

DOMINIKOA

Goiko Estazioko etxea bota zen

Herriko gazte talde batek abuztuan okupatu zuen Goiko

Estazioko etxea botatzeko erabakia hartu zuen Udaltzarak gobernu taldeko alderdien baiezko

botoekin eta HBren ezezkoarekin. Arau Subsidiarioetako irizpideak eta etxea auri egoeran zegoela kontutan izanda, hartu zen etxea botatzeko erabakia. Etxea okupatu zuten gazteek, berriz, etxea berritzu eta bertan hainbat jarduera egiteko presatu zutela adierazi zuten, eta etxea botatzeagatik protestatzeko Udaletxeko arkupetan eman



zuten, gau eta egun, pare bat aste. Gazteek "autorrealizatze-ko lokalak ezinbestekoak" idatziarekin pankartak jarri zituzten Udaletxeko arkupetan. Bestalde, alkatearen kontrako eta gazteentzako lokalen aldeko pintadaz josita agertu ziren Udaletxea eta herriko beste hainbat etxe.

Ipiñarri zerrategia S.L.

MUEBLEAK. AROZGINTZA. ERAIKUNTZA. ENBALAJEA

IBARRA z/g. 20570 BERGARA. TELEFONOA: 76 15 93.

M O T Z E A N

XABIER ARZALLUZ BERGARAN

Xabier Arzalluz EAJko Euskadi Buru Batzarreko presidentea Batzokian izan zen azaroaren 8an egoera politikoari buruz alderdikideen aurrean hizketan. Batzoki kanpoaldean, berriz, presoen egoerari buruz protestatzeko enkartelada egin zuten 40 bat lagunek.

HERRIKO GIMNASTAK BIKAIN

Ariznoa Gimnasia Erritmiko Taldeko infantil taldeko neskatilek Gipuzkoako eta Euskadiko Txapeketak irabazi zituzten Zarautzen eta Altzan. Espainiako Txapelketa tarako txartela lortu zuten.

BILDUMAZALEEN ZILARREZKO EZTIAIK

Bergarako Seilu eta Bildumazaleen elkarteak, 25. urteurrena ospatzeko, Justo Garteri buruzko erakusketa antolatu zuen Kultur Etxean azaroan zehar.

SAN MIGUEL-PE ELKARTEAK 50 URTE

Zubiaurreko San Miguel-Pe elkarteak 50. urteurrena ospatu zuen azaroko azken aste bukaeran. San Miguel-pekoek bazkaria eta beste hainbat ekitaldi antolatu zituzten eta bizirik dirauten elkarteak sortzaileak, Andres Agirre, Conrado Inza, Bonifacio Iraegi eta Donato Ormazabal omendu zituzten.



Osasun zentroko gela berriak inauguratu

Bergarako Osasun Zentroko gela berriak inauguratu zituen Iñaki Azkuna osasun sailburuak. Liburutegia, aldagelak, bilera gela eta 11 kontsulta berri jarri ziren bigarren solairuan eta horrekin batera beste hainbat obra egin ziren Osasun Zentruan. 75 milioi pezeta gastatu ziren.

Presoei buruzko mozioa onartu zen

Udalbatzak EAJ, EA eta PSE-EEren aldeko botoekin eta HBren kontrakoarekin, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeak (EAJ, EA, IU eta HBren oniritziarekin) presoen inguruan onartutako testua onartu zuen, azaroaren 4ean.

HBk testuari beste puntu bat gehitzea eskatu zuen, hitzetatik ekintzetara pasatzeko eskatuz eta presoen egoeraren jarraipena egiteko batzorde bat eratzea eskatuz. Puntu hori gehitzea ez zuten onartu tripartitoak. Pleno amaieran istiluak izan ziren presoen alde protestatzen ari zen talde baten eta Alkatearen eta EAJko bi zinegotziren artean.

P R O T A G O N I S T A K



IDOIA MORENO

25 urteko aerobic monitorea bergararrak azaroaren 9an Azpeitiko kiroldegian egin zen aerobic maratonia zuzendu zuen. Jaso zen dirua Aspacarentzat izan zen.

RAMON AGIRREZABAL

26 urteko futbolari bergararrak, 7 urte Bergaran, 6 Oñatin eta urtebete Arrasaten eman ondoren, futbola laga zuen. Aloña Mendin jokatzen zuen.



IÑAKI SANJOSE

Azaroan egin ziren bozketetan Gipuzkoako Futbol Federazioko zuzendaritza batzordeko kide izateko aukeratu zuten beste lau urtetarako. Juan Luis Larrea presidente atera zen.

BARRENKALEA, 16

☎ 76 20 66



ARGAZKI



FOTO VIDEO

1 9
9 6

abenduak 27 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa



Saioa Berraondo

Saioa Berraondo hainbat urtez BKEN eskubaloian jokatzen aritu ondoren, gaur egun nesken jubenil mailako entrenatzailea da. Aurtengo Behobia-Donostia lasterketan lehen emakumezko bergararra izan da.

Soinketa Heziketaren 5. maila ikasten ari da Gasteizen. Kirola gustoko duela argi dago, baina batez ere, igeri egitea gustatzen zaio.

- Zenbat denbora eskubaloian jokatzen?

- Nahiko berandu hasi nintzen eskubaloian

jokatzen. Ikastolan atletismoan apuntatu nintzen eta kuadrilakoak eskubaloian jokatzen zuten. Institutora joan nintzenean Iñaki Cantero eskubaloitalde bat egiteko neska bila etorri zen. BBBko 2. mailan hasi nintzen eta hori oso berandu da. 4 urte inguru aritu ginen jokatzen eta hasieran, sekulako egurrak ematen zizkiguten. Gero hobetu genuen eta emaitza hobeak lortu genituen.

- Zergatik laga zenuen eskubaloia?

- Jendea ikastera kanpora joan zen eta astean zehar ezin genuen entrenatu eta ostiraletan berandu etortzen zen. Horrela ezin genuen jarraitu.

- Partiduak aulkitik ikustean asko aldatzen dira?

- Bai asko. Orain entrenatzailea naizenez, zerbait agindu egin behar da, zeren bestela jokalariek ez dute kasu handiegirik egiten. Horrek ez du esan nahi beti haserre ibili behar garenik. Gainera oso zaila da entrenatzea, batez ere detaile guztiak ikustea.

- Noiz arte itxoin beharko da emakumezkoen eskubaloitalde nagusia izan arte Bergaran?

- Datorren urtean agian emakumezkoen senior taldea irtengo da, jende nahikoa baitago. Gainera oso ondo jokatzen dute, eskola kirolari esker txikitatik hasten baitira jokatzen eta maila polita hartzen dute.

- Zela ikusten duzu emakumeen artean kirola Bergaran?

- Orokorrean azken urteetan hobera egin du, bai emakumezkoetan eta bai gizonezkoetan. Batez ere eskola kirolari esker, hainbat kirol ezagutzeko

aukera baitago. Lehen guztia futbola zen eta horrik botatzen zituztenak beste kirolak egitera joaten ziren. Orain Bergaran emakumezkoen futbol taldea dago, saskibaloian, eskubaloian, igeriketan... kirol guztietan emakumezkoak ari dira.

- Baloratzeko emakumezkoek kirolean egiten dutena?

- Kirol askotan emakumezkoena bigarren plano batean dago, batez ere taldekako kirolean. Zerbait ona ez badute lortzen ez dira komunikabideetan irizten. Bakarkako kirol batzuetan, tenisean esate baterako, baloratuagoak daude.

- Normala da orain futbolak nesken artean bizi duen booma.

- Mundu guztia dago futbolarekin zoratuta, ez neskak bakarrik. Gehiegizkoa da futbolak daukan protagonismoa.

- Eskubaloiaz gain, beste taldekako kirolik egin izan duzu?

- Ez, bakarrik eskubaloian jokatu dut.

- Behobia-Donostian emakumezkoetan lehen bergararra izan zinen. Zer iruditu zitzaizun proba?

- Urtero esaten nuen, "datorren urtean banao" eta azkenean aurtengoa izan da lehenengo aldia. Arrasateko lagun batekin joan nintzen eta oso ondo pasatu nuen. Halere, horrelako probak beste batekin egiteko dira, bakarrik joanda oso luze egiten baitira. Behobia bukatu ostean Santurtzi-Bilbo egiteko gogoia neukan, baina bakarrik nengoenez ez nintzen animatu.

- Zer duzu nahiago, taldekako kirolak ala bakarkakoak?

- Nahiago ditut taldekakoak, baina taldekideak eta aurkakoak maila berdinekoak direnean.

- SHEEn (IVEF) ari zarenez ikasten eman go dituzu aholku batzuk fisikoari eutsi eta sasoitsu egoteko?

- Asteazkaren 3 edo 4 aldiz zerbait egitea. Bakoitzak gustokoa duen kirola aukeratu behar du.

Kirola gustora egin behar da eta ez sufrituta.

- Eskolan kirolari duen garrantzia ematen zaio ala oraindik bigarren maila batean dago?

- Hobera doa. Heziketa fisikoko irakasleak prestatuagoak daude eta programa bat jarraitzen dute. Helburuak zehazten dira eta txikitatik ikasleari gorputza lantzen erakusten zaio.

"Mundu guztia dago futbolarekin zoratuta, ez neskak bakarrik. Uste dut gehiegizkoa dela"

- Erretzen duzu?

- Ez.

- Futbola telebistatik ikusten duzu?

- Partidu ona denean bai, baina gehienetan ez; partidu gehienak oso txarrak baitira eta ia ez da golik ikusten. Etxean futbol asko ikusten da, baina nik ez hainbeste.

MARKIEGI Autoak

Leizeaga, 1 (San Lorentzo Industria Poligonoa). ☎ 76 35 09. BERGARA.



- Autoen konponketa orokorra.
- Txapa eta pintura.
- Mekanika.
- Bankada unibertsala.
- Pintaketa labe-kabina.
- IAT-rako prestaketa linea.
- Direkzio alienazioa.
- Neumatiko zerbitzua.

TELAETXE S.A.

SAIL BERRIA: TAPIZEN ERAKUSKETA

OIHALAK eta OIHAL PUSKAK

Elgetako bidea (gasolindegitik 300 metrora, "Cotones Agirrezabal"en ondoan)

Telefonoak: (943) 76 39 40 - 76 39 41 • Faxa: 76 56 38 • BERGARA



Aukera haundia oihal eta pusketan, metroka zein pisura.

EDREDOI NORDIKOAK.

TAPIZEN ERAKUSKETA: Zetak, kortinak, toailak,
yakareak, izarak, tapizak, e.a...

KONFEKZIO SAIL BERRIA bisita ezazu: Galtzak, parkak,
alkondarak, txandalak, sudaderak, jertseak, haurrentzako erropak...

FABRIKAKO PREZIOAN!!

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 09:00-12:00 eta 15:00-19:30

Zapatuetan: 10:00-13:00 eta 15:00-19:30

Euskara ezpainetan erdera bihotzean

Ongi ez naiz gogoratzen baina, Bergaran eta bailaran "Kirola euskaraz" edo antzerako titulua zeraman ekintzaren bat egin da igaro den urtean zehar. Komunikabideetan hori dela eta, adierazpenak eta agerpenak izan ziren. Momentu hartan zerbait agertu guran gelditu ginan. Horretarako berandu ez dela ikusirik oraintxe bertan azalduko ditugu gure gogoetak. Orduko egoerak berdin berdin dirau.

Eta zuzenean sartuko ditugu atzamarrak zaurian. "Kirola euskaraz" kanpaina oso dotorea eta txalogarria da. Eta jakin badakigu Bergara aldean eraginik izan duela gainera. Zorionak eta aurrera!!

Baina iniziatiba hori txalotu edo behinik behin informazioa eman duten periodikoak eta komunikabideak zertan ari dira? Informazioa soil soilki jaso eta hor konpon mari anton? Ez al diote bere buruari galderarik egin behar?

Gaur egun Euskal Herri mailan erderaz mintzatu, radioa, telebista eta idatzi, *castellanoz* gehien bat idazten diren periodikoek zer diote horretaz?

Ikusi zer nolako mesprezioak egiten ari diren une

honetan. Mesprezio bikoitza gainera. Herri kirolak zer nolako tratamendua dute egun aipatu medio horietan? Eta bigarren galdera, Herri kirolez bi egunkari mintzaten dira sistematikoki eta biak abertzaleak dira, hala aitortzen dute behinik behin. Egunkaria ez dugu sartzen hemen. Ez da kasua. Baina halere, esan behar dugu, salaketa gisa, egiten duena baino gehiago egin behar lukeela, apenas ezer saiutzen den.

Gatozen gurera. Aipatu nazio mailako bi periodiko horietan ikusi al duzue pilotari buruzko informaziorik euskaraz? Kronikarik? Eta irakurri al duzue Realen eta Athletic-en partiduen inguruko kronikarik euskaraz? Eta Taugresen partiduari buruz euskaraz zertxobait idatzita ikusi al du inork? Eta txirrindularitzari buruz, Indurain, Olano eta gainontzeko gaietan euskaraz ezer ematen al da? Ezertxo ere ez. Erdera hutsean dena. Zer esan gura du jarrera honek? Bat, herri kirolak beti bezala zokoratuta daudela periodiko horietan. Borondate haundiko edo egoskor diren pertsona bakar batzuen eraginez eta ahaleginez egiten den guttia ez da goitik horrela nahi dutelako, alderantziz baizik. Izan ere Herri kirolak "asto-

kiloen" arloa baita, ez du kirol kategoriara altxatzerik merezi. Euskal Herri mailako komunikabideetan bakarra, Euskadi Irratia da goitik, zuzendaritzatik Herri kirolei buruzko plangintza bat daukana eta esandakoa bete egiten duena. Eta bigarren puntua eta honetan datza euskararekiko lotsagabekerizko mesprezioa. Zergatik Herri kirolak euskaraz eta ez gainontzeko kirolak? "Asto eta idi probak eta horrelakoak euskaraz eman" hori izaten da erantzuna. Zer esan nahi du horrek? Herri kirolak zokoraturik badaude, euskara bera ere, beraren pareko jartzen dela, tratamendu berdintsua emanaz. Eta bi periodiko horiek, bi besterik ez dira, gainontzekoek ezer ez dute ematen ez erderaz ez euskaraz, abertzaleak dira. Zurikeriak salatu egin behar ditugu eta ez gaitezen engainutan erori eta lokartu.


Bergaran eta bailaran egin duzuen esperientzia sendotuz, segi aurrera. ■



ANDRES OSA "SAKONA"

abenduak 27 ◆ BERRIGARA ◆ urteari erreposoa

Gabon egun zoriontsuak izan ditzazuela!!



MIKROBUS, TAXI ETA KAMIOIZERBITZUAK
TXURRUKA AUTOAK S.L.

AITZITURRI, 5 SAN LORENZO. ☎ 76 12 36. BERGARA

1 9
9 6

abenduak 27 ♦ BERRICARA ♦ urteari errepasoa



Supermerkatua Oxirondoko azokan

Urteko azken egunetan jakin dugu Udala Oxirondoko azokan supermerkatua jartzeko aukera aztertzen ari dela. Uda aurretik IFA-Unialco kateak kontsulta bat egin zuen Udalean azokan supermerkatua jartzeko eta Udalak azoka dinamizatzeko aukerak aztertzeko estudioa agindu zion Donostiako CKL enpresari. Azterketa hori egin ondoren, Udalak supermerkatua jartzeko aukerari eutsi nahi dio. Azokako beheko solairuan jarriko litzateke supermerkatua eta baserritarrak eta zapatuetako postuak, lehenengo solairuan jarriko lirateke, postu fijoan altura berean. Aurki, superra jartzeko baldintza pleguak kaleratuko dira eta 70 milioiko inbertsioa egin beharko du supermerkatua jartzen duen enpresak.

ESAN ZUTEN...



SALAM DAHA

"Autodeterminazio eskubidea aitortu zaio Saharako herriari, baina ez da indarrean jarri"

**FRENTE
POLISARIOKOA**

NORA PALMITANO

"Euskara ikasten hutsetik hasi nintzen eta eguneko ordu guztiak euskararaz pasatzen nituen"

EUSKALDUN BERRIA



JAIME MARTIN

"Karatea kirol oso gogorra izan arren, oraindik ez dut lesiorik izan"

KARATEKA

Durangoko azokan

Bergarako Udalak Durangoko liburu eta diskoen azokan jarritako postuak harrera ona izan zuen. Ikerlan saileko liburu bildumarekin batera, beste hainbat argitalpen jarri ziren salgai Durangon. Bergarari buruzko gida turistikoa izan zen libururik salduena, 28 alerekin.



Casa Agirre garaile

Casa Agirrek eraman du aurten Eskaparaté lehiaketako lehen saria (60.000 pezeta). Bigarren Kanela (30.000 pta.) izan da eta hirugarren, Jauja (15.000 pta.). Eskaparaté lehiaketara 23 denda aurkeztu dira aurten. Sari banaketa Gabonetako kontzertuan egin zen.



**Winterthur automobil
aseguruek gehiago
ematen dizuete
gutxiagogatik.**

Zorionak!!

winterthur
asegurua

Zurradero 6, behea. ☎ 76 17 40

M O T Z E A N

GAZTEAK UDALETXEKO ARKUPETATIK JOAN ZIREN

Gazte talde batek, lokalak eskatzeko hamabost egunez Udaletxeko arkupetan egindako protestaldia amaitu zuen abenduaren 5ean. Udaleko kultur taldeak, gazteria eta jaiak komisioko kideek, eta gazteen ordezkariak bile-rak egin zituzten arazoari irtenbidea aurkitu nahian.



Gaztainerre eguna

Abenduaren 1ean Gaztainerre eguna antolatu zuen Jardunek plazan. Danbolinean erretako 35 kilo gaztaina eta 50 bat sagardo botila banatu ziren trikiti soinu eta euskal kantuen artean. Eguraldi kaskarra, baina giro polita izan zen.

1 9
9 6

KOMITE INTERNAZIONALISTEN HAMABOSTALDIA

Bergarako Komite Internazionalistak taldeak hainbat ekitaldi antolatu zituen abenduko lehen hamabostaldian: hitzaldiak, bideo emanaldiak eta musika jaialdiak izan ziren besteak beste.

Pertxakoei omenaldia

Jose Mari Egureni, urte askotan Pertxako presidentea izandakoari, eta zuzendaritza batzordeko kide izandako Juan Alkorta, Pedro Egaña, Migel Lazkano, Luis Gutierrez, Felix Iñiguez eta Eugenio Zabalari omenaldia eskaini zioten Petxako bazkideek. Egurenek urrezko insignia, eta besteek zilarrezko bana jaso zuten.



GABONETAKO ARGIAK

Gabonetako argiak piztu ziren herriko erdialdeko kaleetan eta lau sarreretan abenduaren 14ean. 2.800.000 pezeta gastatu ziren herriko erdialdea "pizteko".

GABONETAKO KONTZERTUA

Herriko abesbatz eta musika taldeen Gabonetako kontzertua izan zen abenduaren 21ean. Udal Pilotalekua leporaino bete zen.

GABON KANTAK

Ohiturari eutsiz, herriko hainbat talde kalera irten zen Gabon egunean gabonetako kantuak abestera.

P R O T A G O N I S T A K



JOXU ARANA

27 urteko futbolari bergararrak omenaldia jaso zuen abenduaren 6an Agorrosinen. BKEn 18 urte eman ondoren, merezitako omenaldia jaso zuen Bergarako kapitaina izandakoak.

ENERITZ MUGURUZA

Igeri elkarteko 13 urteko igerilariak brontzezko domina lortu zuen Onatin jokaturako Gipuzkoako igerilaririk konpletoenaren Txapelketan, infantil mailan.



EDUARDO JAUREGI

29 urteko bergararra udaltzain hasi zen Arrasateko Udalean abendu hasieran. Ingurugiro Osasuneko teknikaria eta Nekazaritzako elikagaien industrien ikuskaria da.



ederTU

Zorionak eta urte berri on!!

BARRENKALEA, 23 ☎ 76 29 65

abenduak 27 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa


1 9
9 6

NOVEDASEN 1996ean GEHIEN IKUSI DIREN PELIKULAK

1. **Seven.** 1.500 ikusle.
2. **Los puentes de Madison.** 1.300 ikusle.
3. **El día de la bestia.** 1.250 ikusle.
4. **Independence day.** 1.200 ikusle.
5. **Babe, el cerdito valiente.** 1.150 ikusle.
6. **Twister.** 1.100 ikusle.
7. **Sentido y sensibilidad.** 1.000 ikusle.
8. **Pena de muerte.** 900 ikusle.
9. **Mission: impossible.** 700 ikusle.
10. **Striptease.** 650 ikusle.

IRALA BIDEO KLUBEAN GEHIEN ALKILATU DIREN BIDEO ZINTAK

1. **Braveheart.**
2. **Un paseo por las nubes.**
3. **Johnny Mnemonic.**
4. **Jungla de cristal. La venganza.**
5. **Dos policias rebeldes.**
6. **Mentes peligrosas.**
7. **Virtuosity.**
8. **French kiss.**
9. **Sospechosos habituales.**
10. **Congo.**



ZAIAZKO BIDEO KLUBEAN GEHIEN ALKILATU DIREN BIDEO ZINTAK


1. **Cuando un hombre ama a una mujer.**
2. **Pulp Fiction.**
3. **La mascara.**
4. **El cuervo.**
5. **Asesinos natos.**
6. **Peligro inminente.**
7. **El especialista.**
8. **Cadena perpetua.**
9. **Estallido.**
10. **Causa justa.**



LIBURU SALDUENAK BERGARAN

EUSKARAZ

1. **Eztia eta ozpina.** Patxi Zubizarreta.
2. **Kittano.** J. Ormazabal.
3. **Kutsidazu bidea Ixabel.** Joxean Sagastizabal.
4. **Irakasle alu bat.** Xabier Mendiguren.
5. **Hamaika pauso.** Ramon Saizarbitoria.
6. **Zeru horiek.** Bernardo Atxaga.
7. **Langosta baten inguruan.** Telesforo Monzon.
8. **Badena dena da.** Patxi Zabaleta.
9. **Galdu arte.** J.L. Zabala.
10. **Sara izeneko gizona.** Bernardo Atxaga.



GAZTELERAZ

1. **Una fortuna peligrosa.** Ken Follett.
2. **La piel del tambor.** Perez Reverte.
3. **ETA nacio en un seminario.** Adolfo Baeza.
4. **GAL crimen de estado.** Adolfo Baeza.
5. **El regreso.** Rosamunde Pilcher.
6. **El desencuentro.** Fernando Schwartz.
7. **Noticia de un secuestro.** Garcia Marquez.
8. **Capitan Alatraste.** Perez Reverte.
9. **La regla de tres.** Antonio Gala.
10. **Historia de mujeres.** Rosa Montero.

ITURRIA: Etxepare-Bilintx, Peñalba eta Zangitu.

Ateak eta zokaloak, horma armairuak, sarrailak eta manilak, koadroen enmarkazioa, era guztietako moldurak, apalak, kajoiak...

AR DATZA
Brikolaketa

Masterreka 4, behea. ☎ 76 18 93

DISKO SALDUENAK BERGARAN

EUSKAL MUSIKA

1. **Ainhoa.** Gozategi.
2. **Uhinez uhin.** Maixa eta Itziar.
3. **Hitaz oroit.** Benito Lertxundi.
4. **Sentimenak jarraituz.** Su ta gar.
5. **Gozategi.** Gozategi.
6. **Kashbad.** Kashbad
7. **25 kantu urte.** Oskorri.
8. **Itsumutugor.** Deabruak teilatueta.
9. **Salam agur.** Negu Gorriak.
10. **Kontzientzia ala infernua.** Latzen.



ALDIZKARI SALDUENAK BERGARAN

(Kopuru hauek hilabetekoak dira).

1. **Pronto.** 1.288.
2. **Hola.** 880.
3. **Lecturas.** 664.
4. **Semana.** 648.
5. **Diez minutos.** 492.
6. **Mia.** 380.
7. **Interviu.** 205.
8. **El Mueble.** 94 (hilabetekaria).
9. **Mi casa.** 91 (hilabetekaria).
10. **Quo.** 72 (hilabetekaria).

ITURRIA: Herriko kiosko eta liburudendak.

KANPOKO MUSIKA

1. **What's the story.** Oasis.
2. **Load.** Metallica.
3. **El gusto es nuestro.** Ana Belen....
4. **Spice girls.** Spice girls.
5. **Ella baila sola.** Ella baila sola.
6. **Lunas rotas.** Rosana.
7. **Maquina Total 8.**
8. **Dominguez.** Silvio Rodriguez.
9. **Voyager.** Mike Oldfield.
10. **The memory of trees.** Enya.



ITURRIA: Etxepare-Bilintx eta Zaiazko.

EGUNKARI SALDUENAK

1. **Diario Vasco.** 1.710.
2. **Egin.** 320.
3. **Marca.** 145.
4. **El Mundo.** 102.
5. **Deia.** 84.
6. **Egunkaria.** 84.
7. **El Pais.** 58.
8. **El Correo.** 40.
9. **Mundo Deportivo.** 19.
10. **Expansión.** 14.

ITURRIA: Herriko kioskoak

OHARRA: Egunkariaren kasuan, erdiak baino gehiago harpidetzakoak dira.

KOTXE SALDUENAK BERGARAN

1. **Opel Astra.** 26 kotxe.
2. **Opel Vectra.** 20.
3. **Citroen ZX.** 16.
4. **Peugeot 306.** 15.
5. **Ford Fiesta.** 15.
6. **Opel Corsa.** 13.
7. **VW Golf.** 12.
8. **Ford Mondeo.** 12.
9. **Seat Ibiza.** 10.
10. **Audi A4.** 10.



YOSUNE ESTETIKA ZENTROA

Simon Arrieta 3, behea BERGARA ☎ 76 09 08

• GORPUTZAREN TRATAMENDUA:

- DRENAJE LINFATIKOAK.
- ZELULITISAREN AURKAKOAK.
- GUTXITZEKOAK ETA INDARTZEKOAK.
- TONIFIKATZAILEAK ETA BIRMOLDATZAILEAK.

• AURPEGIKO AZALAREN TRATAMENDUA.

- DEPILAZIOA.
- AURPEGIKO AZALARENTZAKO SOLARIUMA: 3 LANPARA BP.
- MAKILAIK: PIGMENTOEN MIKROINPLAZIOA.
- ESTETIKARAKO NAHI DUZUN GUZTIA.

Zer eskatuko zenioke urte berriari?



MARIA PILAR ARAZ

“Urte honetan zorigaitz asko izan da eta hurrengo urteari bakea eskatuko nioke. Osasuna ere bizitzan aurrera egiteko beharrezkoa dela uste dut. Lasaitasun handiagoa egongo balitz, gazteak batez ere, hobeto biziko lirateke”.



FRANCISCO ETXARRI

“Egoera nahiko nahastua dagoela iruditzen zait. Horretarako bakea beharrezkoa dela uste dut. Ea urte berriak guztioi gauza hobekak ekartzen dizkigun. Horretarako guztiok ondo eraman beharko ginatke”.



ESTITXU LOBATO

“Urte ona izatea. Datorren urtean nota onak ateratzea espero dut. Ea Erregeek opari onak ekartzen dizkidaten eta familiarekin, aurten moduan, ondo konpontzen naizen. Horrekin konformatuko nintzateke”.



IÑAKI EGUREN

“Lehenengo eta behin bakea. Bakea izanez gero, gauzak hobeto doaz. Gero lana, arlo ekonomikoa eta osasuna ondo joan daitezen gustatuko litzaidake. Baina gehien azpimarratuko nukeena eta garrantzitsuenak bakea izango litzateke”.



MANUEL ANGEL SANZ

“Biolentzia gutxiago eta bake eta lan gehiago izatea eskatuko nioke urte berriari. Momentuan, lanean kili-kolo gabiltza eta dudak lanari eusten badiot, konformatuko naiz. Ez dut besterik eskatzen”.



JUANITA ARAMENDI

“Orokorrean, jendearentzat bizimodu hobea eskatuko nuke. Ni pozik bizi naiz eta berdin jarraitzen badut, gustora sentituko nintzateke, ez dut bestelako gauzen beharrik. Ez nago kexatzeko moduan”.



AITOR PEDREJON

“Bergaran esaterako, gazteak lokalen faltan gabiltza eta herri batean lokalak izatea beharrezkoa dela uste dut. Bestalde, datorren urtean nota onak eta neskaren bat bilatzen badut, fenomeno egongo litzateke”.



ANA ISABEL SANZ

“Terrorismo eta biolentzia gutxiago, maite ditudan pertsonendako osasuna eta mundu guztia pozik sentitu dadila. Mundu guztia gustora egon dadila. Bestalde, nire kasuan, gustoko dudak lana ateratzea gustatuko litzaidake”.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zorionak eta urte berri on!!

MATXIATEGI, 5 ☎ 76 57 41 - 76 57 42
FRAISKOZURI, 4 ☎ 76 13 41 - 76 18 42

Nola joan zaizu urtea?




LUIS KAPANAGA

"Oso ondo. Ez dugu inongo arazorik izan. Familia osoa osasuntsu gaude, ez dugu zorrik izan eta, beraz, ez dugu kexatzeko arrazoirik. Guztiok nahiko urte ona igaro dugu. Ezin da gehiago eskatu".



MERCEDES IÑARRA

"Normal samarra izan da. Haurdun nago baina bestela ez zait gauza berezirik gertatu. Urtea nahiko positiboa izan dela uste dut".




KARMELO SANTORCUATO

"Orokorrean urte ona izan da. Familia izan dugu eta bai osasun eta baita lan aldetik ere, oso gustora sentitu naiz. Urte zoragarria izan da. Ez zait ezer txarrik gertatu".



MARIBI IRAZABAL

"Nahiko ondo joan da. Ez zait gauza partikularrik gertatu. Beste urteen antzerakoa izan da".



ARITZ OLASO

"Ondo joan zait. Eskolan dena aprobatu dut eta unibertsitatean hasi naiz eta hori positiboa izan da. Hori bai, azkar pasatu zait urtea eta diru faltan egon naiz. Ez dira nituen asmo guztiak bete baina tira!".



MARIA LUISA ZABALETA

"Nahiko ondo. Ez zait gauza onik, ez txarrik gertatu. Oso normala izan da. Osasun aldetik orain dela urtebete baino hobe eta gustorago egon naiz. laz nahiko gaizki pasa nuen".



JULIO BLAZQUEZ

"Oso ondo joan zait. Urte ona izan da. Lana beharrezkoa da eta nire kasuan, zorte handia izan dut: lan asko izan dugu. Gertatu zaidan gauzarik politena, bigarren alaba itxaroten nagoela".



LOREA ALBERDI

"Oso urte ona izan da. Umea izan dut eta beste arlo guztietan ondo ibili naiz. Mundu mailan ez dira horren ondo ibili, Zairen esaterako, baina nire kasuan ezin naiz kexatu".

HIROL MODA

• EHIZA

• MENDIA

XAMARTIN KIROLAK

txandalak, zapatilak, txamarrak

Ibargarai 20, behea. ☎ 76 59 29

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea

- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

IKASTARO INTENTSIBO BERRIAK

INGELES FRANTSESA ALEMANA

Urtarrilaren 13tik aurrera.

- HIRU HILABETEKO IRAUPENA.
- EGUNERO BI EDO BI ORDU T'ERDI.
- GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ.

HONEZ GAIN BESTE

HAINBAT IKASTARO

INFORMAZIOA:

Begarako UNED. (3. pisua)

☎ 76 06 87



MATRIKULA ZABALIK!!

JAIOTAKOAK

URTARRILAK

Esther Cabo Mulas. Urtarrilak 2
Imanol Retolaza Arriola. Urtarrilak 4
Borja Alcantara Corrales. Urtarrilak 5
Xabier Gaztañaga Fernandez. Urtarrilak 6
Asier Sampietro Alberdi. Urtarrilak 9
Mikel Jimenez Carrasco. Urtarrilak 15
Marta Zubia Torres. Urtarrilak 18
Eiene Sasieta Barrutia. Urtarrilak 22
Irati Rodriguez Inza. Urtarrilak 23
Nerea Etxaniz Arizmendiarrera. Urtarrilak 27
Unai Irizar Gantxegi. Urtarrilak 29

OTSAILA

Uxue Sanz Errasti. Otsailak 4
Andoni Sanz Errasti. Otsailak 4
Andoni Gallastegi Agirre. Otsailak 7
Ane Izagierre Diaz. Otsailak 8
Sarai Plazas Navas. Otsailak 13
Dournia El Ouardi Ouasa. Otsailak 16
Yerkam Tena Sanchez. Otsailak 18
Mari Angeles Uriarte. Otsailak 21
Mikel Agirre Garmendia. Otsailak 23
Pello Etxaniz Agirre. Otsailak 26
Nere Zurro Arrazola. Otsailak 26
Julen Zubia De Llanos. Otsailak 27
Andres Aristi Gardoki. Otsailak 28
Maddi Elorza Agirregabiria. Otsailak 29

MARTXOA

Asier Larrea Sebal. Martxoak 1
Garazi Cruz Larrañaga. Martxoak 1
Iker Hiriart Zabaleta. Martxoak 4
tzar Morillas Igartua. Martxoak 5
Ainhoa Azkarraga-Urizar Urzelai. Martxoak 8
Beñat Gonzalez Iñurategi. Martxoak 11
Ainhoa Sasieta Agirre. Martxoak 15
Unai Unamuno Ruiz. Martxoak 16
Igor Okina Mujika. Martxoak 18
Kimberly Castro Pereira. Martxoak 19
Julen Corbillon Losada. Martxoak 19
Maidor Agirrezabal Igarza. Martxoak 22
Iñolia Imaz Arzelus. Martxoak 29

APRILA

Paulo Aspiazu Larrañaga. Apirilak 1
Maialen Goinzelaieta Losada. Apirilak 3
Andoni Kortabarria Barruso. Apirilak 4
Garazi Agirrezabal Iturbe. Apirilak 26
Maite De Pedro Lazkano. Apirilak 26
Ane Sancho Arakistain. Apirilak 27
Olatz Mateos Arreseigor. Apirilak 27
Jon Macias Umerz. Apirilak 28
Paul Azkargorta Juaristi. Apirilak 30

MAIATZA

Miren Larrañaga Aspiazu. Maiatzak 5
Paul Valgañon Urrutia. Maiatzak 6
Andoni Etxezarreta Conde. Maiatzak 10
Maika Gallastegi Meabe. Maiatzak 14
Izaro Fernandez Iriondo. Maiatzak 17
Jabier Egnio Ugarte. Maiatzak 18
Iñaki Galarraga Pardina. Maiatzak 19
Mikel Luna Urrutia. Maiatzak 23
Oier Ugalde Gonzalez. Maiatzak 25

EKAINA

Miren Agirrezabal Etxeberria. Ekainak 1
Mikel Eguren Alonso. Ekainak 5
Iker Ruiz de Larramendi Lete. Ekainak 6
Ainhoa Irizar Frago. Ekainak 14
Alatz Lazpita Arizmendi. Ekainak 17
Mikel Etxezarreta Marti. Ekainak 19
Michelle Rajado Conde. Ekainak 21
Mikel Rodriguez Fernandez. Ekainak 23
Martin Oteiza Lasagabaster. Ekainak 26
Nerea Olabarria Jauregi. Ekainak 27

UZTAILA

Haizea Alberdi Gonzalez. Uztailak 3
Ion Loidi Eguren. Uztailak 5
Tania Fernandez Costa. Uztailak 8
Maidor Santorcuato Labaien. Uztailak 12
Jokin Abio Abreu. Uztailak 21
Xabier Umerz Camaño. Uztailak 26
Aitor Beristain Salaberria. Uztailak 26

ABUZTUA

Andrea Balador Etxebarria. Abuztuak 7
Andres Basterra De Santos. Abuztuak 10
Julen Juaristi Berasategi. Abuztuak 12
Ane Eraña Arbulu. Abuztuak 12
Unai Alberdi Azula. Abuztuak 14
Irene Odriozola Fornell. Abuztuak 16
Joanes Plazaola Madinabeitia. Abuztuak 18
Ion Gortia Gorritxo. Abuztuak 24
Xabier Jauregi Agirre. Abuztuak 28
Ane Jauregi Agirre. Abuztuak 28
Jokin Ariedaleaniz Coranti. Abuztuak 30
Janire Jimenez Avila. Abuztuak 31

IRAILA

Lorea Madinabeitia Dominguez. Irailak 9
Christian Moreno Haro. Irailak 12
Itziar Campos Goiti. Irailak 12
Aitor Olañeta Gallastegi. Irailak 13
Iosu Rueda Taboada. Irailak 13
Yesenia Alcaraz Diaz. Irailak 19
Jonathan Alcaraz Diaz. Irailak 19
Nerea Najera Larrañaga. Irailak 21
Semark Lizarralde Solana. Irailak 24
Iker Ortuzar Ruiz de Azua. Irailak 24
Mikel Santorcuato Azkarate. Irailak 25
Jokin Labaien Soto. Irailak 27

URRIA

Julen Larrañaga Llamas. Urriak 6
Joseba Elorza Garitano. Urriak 6
Sara Moreno Fernandez. Urriak 6
Xabier Albisu Peñas. Urriak 7
Jokin Narbaiza Irizar. Urriak 9
Asier Lasheras Gimber. Urriak 11
Yoel Sanchez Rodriguez. Urriak 14
Borja Berroya Erce. Urriak 16
Leire Sanz Cid. Urriak 30

AZAROA

Ion Azkarate Madinabeitia. Azaroak 1
Ander Fuentes Horrillo. Azaroak 6
Gorka Larrañaga Aguilu. Azaroak 7
Ane Aramendi Madariaga. Azaroak 7
Marina Azkarate-Askasua Borobia. Azaroak 8
Idoia Herran Suinaga. Azaroak 12
Amaia Gallastegi Borroguero. Azaroak 18
Jon Ander Mujika Silva. Azaroak 20
Mikel Aranzabal Osinalde. Azaroak 21
Jon Perez Guisado. Azaroak 22
Joseba Anton Izquierdo. Azaroak 23
Asier Garcia Irasuegi. Azaroak 25
Maitane Aranzabal Eskibel. Azaroak 26
Xabier Diaz De Pedro. Azaroak 30

ABENDUA

Iñigo Astiazaran Orbea. Abenduak 2
Aitor Sanchez Luque. Abenduak 5
Mireia Arana Fernandez. Abenduak 5
Andrea Rubio Hidalgo. Abenduak 9
Marina Ortiz Hervas. Abenduak 10

HILDAKOAK

URTARRILAK

Maria Azkargorta Gisasola, 2, 87 urte
Elena Urbesalgo Trojaola, 2, 89 urte
Julia Basauri Maturana, 2, 84 urte
Felix Iñarra Aristi, 4, 81 urte
Marcos Gisasola Araiztegi, 6, 65 urte
Marcial Garitano Azkarate, 8, 86 urte
Jon Mancidoro Aretxaga, 9, 37 urte
Jose Antonio Elkoroiñbe Lazpiur, 15, 70 urte
Juan Azkarate Arretxe, 15, 72 urte
Ines Isasmendi Unzueta, 16, 93 urte
Luis Aranzabal Gantxegi, 24, 70 urte
Loren Uribarri Iraeta, 26, 66 urte
Bonifacio Lazkano Larrañaga, 26, 90 urte
Gregoria Eguren Txintxureta, 27, 94 urte

OTSAILA

Concepcion Maiztegi Elkorobereibar, 1, 88 urte
Miren Itziar Romaratezabala Rementeria, 5, 40
Bernardino Garitano Berraondo, 8, 91 urte
Mari Carmen Nin Lopez, 9, 35 urte
Teresa Molina Peñaola, 23, 81 urte
Pedro Lazpiur Urrutia, 24, 87 urte
Maximo Garai Ercilla, 24, 81 urte
Ignacio Alkorta Larrea, 27, 59 urte
Juan Manuel Vera Torres, 29, 77 urte

MARTXOA

Juliana Garmendia Murua, 1, 96 urte
Carmen Dios Jimenez, 1, 55 urte
Elisabeth Mujika Agirrezeziaga, 1
Jacinta Larrañaga Larrañaga, 1
Juan Alberdi Iribekanos, 3, 81 urte
Felix Gallastegi Belastegi, 3, 66 urte
Mikel Diez Bravo, 4, 28 urte
Alberto Elkorobarrutia Urien, 8, 70 urte
Pedro Barrutia Arenaza, 10, 70 urte
Jose Miguel Errasti Atorrasagasti, 11, 33 urte
Jose Dacosta Diaz, 12, 77 urte
Josefa Portal Portal, 17, 75 urte
Jose Gorospe Pikasari, 22, 68 urte
Santos Arietaleaniz Ziarsolo, 22, 65 urte
Luis Belastegi Larrañaga, 23, 79 urte
Asuncion Unamuno Goñi, 24, 79 urte
Maria Larrañaga Zubizarreta, 27, 80 urte
Dionisio Izarra Iñarra, 28, 83 urte

APRILA

Jose Luis Ugarteburu Laskurain, 6, 68 urte
Hermia Crespo Sampietro, 8, 63 urte
Hilario Etxeberria Zangitu, 9, 72 urte
Teodoro Zabala Igartuburu, 16, 86 urte
Santiago Agirrebarrena Arriaran, 18, 65 urte
Venancia Fernandez Rivas, 25, 98 urte
Aitor Alzelai Juaristi, 25, 25 urte
Martin Albisua Larrea, 25
Julian Rufz Bernete, 26, 66 urte
Maria Arregi Ereño, 29, 95 urte
Manuel Orbea Agirrezabalaga, 29, 88 urte

MAIATZA

Eladio Lafuente Etxeberria, 4, 85 urte
Pedro Osoro Olabarria, 6, 82 urte
Juan Mari Garai Iturbe, 8, 49 urte
Josefa Rajado Sanchez, 8, 88 urte
Bernardino Lamarin Ugaldea, 11, 80 urte
Pedro Perez Diez, 16, 66 urte
Emilia Barrutia Laskurain, 19, 80 urte
Alejandro Juaristi Gantxegi, 25, 83 urte
Andres Mujika Arregi, 28, 56 urte
Cefeirino Garcia Gonzalez, 30, 63 urte
Arantxa Ortiz de Zarate Muñoz, 30, 52 urte
Manuel Sainz Ortigosa, 31, 59 urte

EKAINA

Maria Agirre Mendizabal, 1, 90 urte
Maria Natividad Muniozguren Bernedo, 10, 71 urte
Guillermo Zenitagoia Gallastegi, 23, 86 urte
Jose Maria Telleria Isas-Isasmendi, 24, 63 urte
Maria Larrañaga Askasibar, 27, 67 urte
Felipe Oregi Arregi, 29, 67 urte

UZTAILA

Lucia Lopez Jimenez, 2, 66 urte
Francisco Muruamendiaraz Alberdi, 19, 90 urte
Felisa Larrañaga Maortua, 23, 72 urte
Maria Isabel Okina Salsamendi, 26, 68 urte
Paula Agirre Kortazar, 26, 85 urte
Nieves Armentia Elguea, 27, 58 urte

ABUZTUA

Miguel Zabaleta Arrizabalaga, 1, 85 urte
Dolores Martin Davila, 2, 79 urte
Teresa Larrañaga Baztarrika, 3, 82 urte
Tomas Astaburua Arberas, 7, 55 urte
Juan Jose Markiegi Laskurain, 15, 85 urte
Jose Ramon Lete Garaikoetxea, 16, 35 urte
Francisca Regil Agirre, 21, 91 urte
Maria Aretxaga Garaiza, 25, 91 urte
Maria Macias Rosado, 26, 71 urte
Saturnino Sarrau Alberdi, 28, 68 urte
Mateo Arriue Jaca, 31, 72 urte
Juan Jauregi Mujika, 31, 77 urte

IRAILA

Maxima Manzano Perez, 5, 91 urte
Iker Zabala Urriategi, 24, 16 urte
Maxima De Pablo Gomez, 23, 66 urte

URRIA

Angel Arregi Gantxegi, 2, 62 urte
Nikolasa Gantxegi Unisabel, 4, 87 urte
Jesus Elkorobereibar Maiztegi, 6, 80 urte
Maria Aristimuño Kortabarria, 10, 73 urte
Francisco Urzelai Oroiz, 10, 59 urte
Juana Iñarra Orueta, 11, 87 urte
Angela Sanchez Nozal, 16, 80 urte
Maria Beistegi Umerz, 17, 89 urte
Margarita Sanz Roitegi, 23, 91 urte
Benedicta Gallastegi Elejalde, 24, 80 urte


AZAROA

Silvestre Bolibar Iribekanos, 1, 77 urte
Pilar Elorza Aristi, 2, 92 urte
Maria Luisa Irazabalbeitia Ariola, 6, 68 urte
Jose Maria Gallastegi Zubiaurre, 8, 89 urte
Juana Lamarin Iturriaga, 17, 81 urte
Pedro Alonso Gallo, 20
Angela Rodrigo Garces, 23, 43 urte
Julia Imaz Baztarrika, 23, 72 urte
Sabina Maiztegi Gantxegi, 23, 62 urte
Esteban Larrañaga Maortua, 24, 70 urte
Gregoria Aranburu Elgeta, 24, 101 urte
Antonia Elgarresta Gantxegi, 27, 59 urte
Jose Maria Urbesalgo Bengoa, 27, 63 urte
Jose Gantxegi Barrutia, 29

ABENDUA

Maria Antonia Martin Lopez, 2, 63 urte
Joaquin Soto Garcia, 6, 75 urte
Esteban Etxeberria Belzunegi, 6, 84 urte
Felix Miguel Santamaria Ajuriagerra, 9, 61 urte


Kutxa



gipuzkoa donostia kutxa

1 9
9 6

abenduak 27 ♦ BERRIGARA ♦ urteari errepasoa



ARGAZIAK: JUAN IDIGORAS


Foruak galdu zireneko 100. urteurrena. 1976.

1 976ko uztailaren 21ean Foruen abolizioaren lehen mendeurrena ospatu zen Bergaran. Euskal Herriko udal guztietako ordezkariak izan ziren egun horretan Bergaran, Udalaren deia erantzunez.

Orduko prentsan jasotzen denez, Bergara Euskal Herriko hiriburua izan genuen egun batez. Milaka lagun etorri ziren Bergarara eta 68 izan ziren ordezkaturako udalak. Udaletxetik San Pedrorra bitarteko ibilbidea bete ondoren, eguerdi aldera, foruen eskubideen alde borrokatu eta hil ziren guztien oroimenezko meza izan zen San Pedro parrokian.

Pablo Garaikoetxea parrokoak emandako mezan Bergarako Orfeoiak ere hartu zuen parte. Plazan ere jendetza ugari bildu zen eta jarraian izandako ez ohizko Plenoan, Jose Luis Elkoror orduko alkateak, udal guztiek herriaren benetako sentimenduaren azalpen argia izatea aldarrikatu zuen.

Bergarako UNED, (3. pisua)



URTE BERRI ZORIONTSUA
IZAN DEZAZUELA!!



Zure
Ozari Donata
Bergara

Barrenkale, 27

SEBASTIAN IMAZ



Milagros eta Sebastian. 26 urte lanean. Aranerreka, 1 ☎ 76 32 67

JOSE LUIS LETURIA




Mari Angeles eta Jose Luis. 34 urte lanean. Artekale, 5 ☎ 76 11 30

LUIS MARI REZOLA



Luis Mari eta Margari. 11 urte lanean. Matxiategi, 7 ☎ 76 17 63

IGARZA



Alicia eta Jabier. 23 urte lanean. Irizar, 3 ☎ 76 14 12

Bedelkarreko harategiak



Herritarren zerbitzura!!

JOSE MANUEL ZURUTUZA



Jose Manuel. 10 urte Arrasaten eta 20 Bergaran. Urteaga, 9 ☎ 76 08 68

Amaia eta Ion Mirena



San Pedro, 24 ☎ 76 12 23

Iosu eta Karmentxu



Zubiaurre, 23 ☎ 76 28 76

LETURIA HARATEGIAK

LAZPIUR



Jabier Lazpiur. Harategiak 82 urte ditu. Komenio, 2 ☎ 76 10 72

URCELAY HARATEGIA



Pello eta Arantxa. 4 urte lanean. Ibargarai, 7 ☎ 76 00 45

FALTZARI

Bolu 24 behea BERGARA (Gipuzkoa). Telefonoa eta faxa: (943) 76 30 57



Sukaldeak eta osagaiak!!